

TOKIKOM

2016ko otsaila | 156. zenbakia

# aiKor!

txorie



Martin Barriuso, nekazaria

## Marmelada guztietako fruta





# Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin



**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TxORIERRI**  
**S.COOP.**

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1  
48160 – DERIO

Tel.: 94 403 40 60  
Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net  
www.txorierri.net

**Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea**

**ATE IREKIEN  
JARDUNALDIA**

(18:30etatik aurrera)

Apirilaren 19an  
Maiatzaren 3an  
Maiatzaren 26an



Primer centro de FP de Bizkaia  
distinguido con la Q de oro  
**Premio Vasco a la  
Calidad de Gestión**



## ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika  
*Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)*
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*
- Produkzioaren Programazio goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*

### SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrol goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*

### MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknika  
*Goi mailako zikloa (2.000 ordu)*

-  **4** Eritxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Goiznabar Monclús, nomada
-  **12** Gurean izan da... J. C. Alonso, psikologoa
-  **14** Gaztea eta... Katalin Zarate, kultura zalea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Martin Barriuso, nekazaria
-  **22** Baserri Antzokia
-  **24** Publiirreportajea... Atomika Studio
-  **26** Gure Esku Dago
-  **28** Eskuz Binakako Emakumeen Cup
-  **30** Josu Aretxabaleta, artisaua
-  **32** 50 urte, Oiz mendira
-  **34** Teknologia... 40 €-ko eskarmentu digitala
-  **35** Aikorrizketa... Errapel Mentxaka
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Juan Carlos Alonso, psikologoa



22 Baserri Antzokia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística



**Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarte  
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,  
Arrekikili, Tximintx eta Altxora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea  
eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Ines Serrano, Ixone Zubieta, Rober Gómez, Xabier Díaz,  
Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Atotz Goikoetxea, Gaizka Peñafiel,  
Oihane Goienetxe, Aner Mentxaka, Jose Angel Mentxaka, Oihana  
Astobieta, Belen Gana eta Iskander Barrena

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-  
nen edota eritzien erantzukizunik.



## Nagia

**K**ontatu didate gizakiarena baino ez den ezaugarri bat nagia dela. Gizakia omen da ezaugarri hori duen organismo bakarra. Eta jakina, honek zer pentsatua eman dit, baita zer ulertu eta zelan aurre egin hainbat arazo eta azalpeni ere. Eta hori beti izaten da gauza ederra.

Izan ere, zientzialari batek zure mundua azaltzen duenean lasaitua hartzeko aukera ere eskaintzen dizu. Nagia da galazari didana larunbat arrasti goxo honetan nire sofa goxoagotik arinago altxatzea, argi izan arren, irakurtzen zabiltzan artikulua hau lehenbailehen idatzia izan behar zela. Nagiak oztokatzen dio nire gazteari etxera arinago etortzen (edo etxetik beranduago irteten), aspalditxotik bere zain zeuden etxeko lan eta ikasgai erakargarriei ekiteko. Nagia izan daiteke, era berean, gure lana hobetzen ahalegindu, gure inguruko giza taldeetan parte hartu edota lagunari lagundu ez izanaren arrazoi ximple eta bakarra.

Ez gara alferrak, ez dugu inor izorratu nahi, ez dugu apropos egiten, nagitsuak gara, besterik ez, gure berezko ezaugarri gizatiarra da, zer egingo dugu ba! ez da ezer gertatzen. Ulermen horrek askatu egiten ditu hari batzuk, batez ere ekin eta ekitean jarduten dutenek ezer ez egitean errudun sentitzeari uzteko laguntzen badu, edo besteei bakean uzteko arrazoi bat ematen badu.

Berezkoa bai, baina unibertso bikoiti honetan beti dago zeozor, oreka bere neurrian gordetzeko. Agian motibazioa izan daiteke nagia lagun diezaiokeena bere lekuan lasai egoten, oreka neurtua proposatuz eta aktibitatea sortuz. Motibazioak guztiok bultzatuko gaitu, ni sofatik altxatzen, nire semea lanean jartzen, jendea herriko partaide izaten, lagunok lagunari kasu egiten...

Filosofiako ikasgaietako batean natura eta kulturaren arteko desberdintasunak azaltzen dira, marra gero eta finagoa



**INES SERRANO**  
(Filosofian lizentziaduna)

bilakatzen ari den arren. Gure kontu honi dagokionez, nagia naturala da, eta motibazioa kulturala, eta, nire uste apalean, horrek ez du askorik laguntzen gizakiaren eboluzioan. Baina euskara hutsean irakurri ahal dugun aldizkari hau eskuartearen baduzu, gizarteko nagi linguistikoa astintzeko motibatuta dauden hainbat laguni esker dagoelako da. Nagia errespetatu dezagun, eta indartu dezagun aberastuko gaituen motibazioa.

**G**ehienek, izenburua irakurrita, pentsauko dozue: Zer da? Jotearen inguruan egiteko metodoa? Birtualki dantzatzeko era barria? Ba ez! XXI. mendean bagagoz be, euskal dantzak ez dira hainbeste aldatu... Aiko taldekoeen azken burutazinoa da: jotearen inguruan egindako dokumental ederra. Atxinako eta gaur egungo irudiz osatutako dokumentala, baina dana ari fin batez josita. Estreinaldian egon ginanok euskal dantzen inguruan dagozan musikari, dantzari eta ikertzaile ezagunak ikusi ahal izan genduzan horren gaineko azalpenak emoten.

Bertan entzundakoetatik gehien arritu ninduenak hain geurea dala pentsau

## Jotamentala



**IXONE ZUBIETA**  
(Lainomendi, Derioko dantza taldearen kidea)

izan dogun jotea, ikerketek dinoenaren gaitik, Andaluzia edo Balentziatik etorritako dantzea dala izan zan, Hego Amerikan eta Iberiar penintsulatik erraz aurkitu daitekena. Euskal Herrian moldatu eta gure estiloa emon jako, baina oinarria antzekoa ei dau.

Beste datu bat: jolaserako, harremanetarako edo ligatzeko dantzea da. Gaur egun korruan eta era uniforme baten dantzatzen dan hori, bikoteka dantzatzean, oinak eta besoak erabilia ligatzeko tresna ederra izan leiteke. Badakizue, ligau gura izanez gero, emon izena dantza taldeetan... Eta aitatutako horreek lagin bat baino ez dira; aukerea badaukazue, ikustera konbidatzen zaituet, merezi dau eta!



## Alderdiek pozik hartu dute aireportuaren ordutegia ez luzatzeko erabakia

Vueling hegazkin-konpainiak Loiuako aireportuaren udako ordutegia luzatzeko eskatu zion AENari. Zehazki, hegaldiak ordu erdi bat lehenago hastea nahi zuten, 06:15ean; eta ordubete berandua-go bukatzea, 00:30etan. AENak hilabete batzuk eman ditu eskaria aztertzen eta otsailean bertan jakinarazi duen bezala, ordutegia ez luzatzeko erabakia hartu du, "momentuz, ezin delako nabigazio-hornitzailearen zerbitzua egokitu".

Txorierriko alderdiek pozik hartu dute erabakia. Izan ere, hasieratik azaldu dira Vueling konpainiaren eskariaren aurka, aireportuaren ordutegia luzatzeak herri-tarren bizi-kalitatean eta atsedenerako eskubidean edukiko zuen eraginagatik. Hala, azken hilabeteotan, Erandio, Sondika, Loiu, Derio eta Zamudioko alkateek bilerak egin dituzte AENaren ordezkari-ekin, mozioak onartu dira udaletxeetan eta gaia Bizkaiko Batzar Nagusietara ere eramane da. Horren haritik, aipatu beharra dago Batzar Nagusiek ere eskatu ziotela AENari aireportuaren ordutegia ez luza-tzeko udalerrien adostasuna izan ezik.

"Txorierriko alkateek albiste pozgarri-tzat jotzen dugu aireportuaren gaur egungo ordutegia mantentzea. Jarrera sendoa eta aktiboa eduki dugu herrita-rron eskubideak eta interesak defendatzen, eta horrek emaitza pozgarria izan



du. Oso balorazio positiboa egiten dugu eta ildo beretik jarraituko dugu lanean".

EH Bildutik ere azaldu dira AENaren erabakiarekin pozik, eta azpimarratu dute alderdien artean egon den adosta-suna. "Alderdi guztiek gai honen ingur-uari bat egiteari eman diogu lehentasu-na, eta horrela AENari presio handiagoa egin ahal izatea. Beraz, gure alderdiak udaletxeetan eta Batzar Nagusietan aur-

keztutako mozioak kendu egin ditugu, eta beste alderdietakoek onartu, nahiz eta puntu guztietan ados ez egon". Bes-talde, aipatu digute AENari eskatuko dio-tela, besteak beste, Estatuko eta Europa-ko beste aireportu batzuetan ezarritako neurriak Loiu ere ipintzeko, ingurumen-eragina ahalik eta gehien murrizteko. Era berean, aireportuko enpresa-batzordea-rekin lan egiteko asmoa dute.

**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburuntz:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419

**ERREKA**  
JAT  
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,  
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

**CAFE-BAR**  
**BIDE-GORRI**

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irakia  
WIFI gunea

**Garmendia**  
ardoak



Pinea pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel/Faxa: 94 452 00 49

## Berbalagunen ekitaldiak

Ekitaldi bikoitza antolatu dute martxoaren 13rako. Hala, goizean, Larrabetzu eta Lezama arteko ibilbidea egingo dute eta, besteak beste, hauexek bisitatuko dituzte: San Bartolome ermita, gerra garai-ko lubakiak, Goikolea-Oloste jauregia eta Elizalde. Larrabetzuko plaza-tik 09:00etan aterako dira. Ostein, indabak prestatzen ikasteko tailerra egingo dute Lezamako txokoan. Tailerra 11:00etan izango da. Berbalagunek aukera hauek eman-goz dezakete parte-hartzaileei: ibilbi-dea egitea baino ez; sukaldaritza tailerra baino ez; ibilbidea eta baz-karia (15 euro); eta tailerra eta baz-karia (15 euro). Izena emateko, 635 75 35 95 telefonora deitu daiteke, edo txorierri.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikora mezu bat idatzi.

## Almeriako kartzelara martxa

Ezker abertzaleak euskal preso-ak dauden Espainiako eta Portugalgo karteletara martxak antolatu zituen otsailaren 20an. Ekintza Abian prozesuaren haritik egin zen, eta helburua presoek ere prozesu horretan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzea izan zen. Era berean, sakabanaketa eta hark dakartzan ondorioak salatu zituzten. Martxak 40 kartzelara egin ziren.

Txorieritik eta Mungiatik auto-bus bat abiatu zen Almeriako kartzelara. Bertan Josu Guinea larrabetzuarra dago. Joan-etorrian, 27 ordu eman zituzten autobusean eta 2.000 kilometro egin zituzten; Almerian ordu bi eman zituzten. Kartzelako parkingean Guinearen senideekin elkartu eta ekitaldian 70 pertsona inguruk hartu zuten parte. Bolanderak bota ziren eta, gainontzeko karteletan bezala, adierazpen komun bat irakurri zen. Bertsolariak, trikitilariak eta txistulariak ere aritu ziren ekitaldian. Era berean, manifestazio txiki bat egin zen kartzelako ateraino, Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak lagunduta, eta kartzelaren zuzen-dariari Abian prozesuaren liburuxkak eman zizkion, hango euskal presoan artean banatu zitzaiz.

## Denbora-muga, Karraderan-eko aurtengo berezitasuna



a: Isakander Barrena

Burdinazko Harresian Karraderan lasterketa hirugarren aldiz egingo da martxoaren 12an, Larrabetzun. Korrikalariak 9:30etan aterako dira herriko plazatik eta bukatu ere bertan bukatuko dute lasterketa.

Antolatzaileek azaldu diguten moduan, basolanen ondorioz egindako aldaketa txiki batzuk salbu, ibilbidea iazko berbera izango da. Korrikalariak 32 kilometro egingo dituzte eta, besteak beste, Gaztelumendi (323 m), Arrizurigan (326 m), San Martingane (565 m) eta Bizkargi (565 m) mendiei egin behar diete aurre, "beste tranpa batzuk tarteko. Gerra Zibileko hainbat lubaki eta bunker ikusteko aukera ere izango dute, baita horietako baten barrutik pasatzeko aukera ere". Era berean, sei anoa-postu ipiniko dira ibilbidearen zehar.

Gehienez jota 350 kirolarik har dezakete parte lasterketan, eta ale hau itxi denerako 200dik gora lagunek emanda dute izena. Izena ematea apukosport.

com webgunearen bidez egin daiteke martxoaren 6ra arte. Lasterketaren egunean bertan ez da izena emateko aukerarik egongo. "Aurtengo berezitasun nagusia da lasterketa bukatzeko denbora-muga ipini dugula. Gehienez sei ordu emango dira 32 kilometroak egiteko, eta 12. eta 20. kilometroetan kontrolguneak ipiniko dira, egin egiten dela ziurtatzeko. Hamabigarren kilometrotik pasatzeko, ordu bi eta 10 minutu utziko ditugu; eta 20. kilometrotik pasatzeko, hiru ordu eta 45 minutu".

Lasterketaren ondoren, kontzertua egongo da, Hori Bai gaztetxeak antolatua. "Karraderan elkartetik lasterketa ikustera etortzeko gonbidapena egin nahi diegu irakurle guztiei, eta beren burua sasoian ikusiz gero, bertan parte hartzea ere. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu bai babesle, bai laguntzaile guztiei, baina bereziki gu laguntzera hurbildu diren larrabetzuar guztiei".

**Informazio gehiagorako:**

[www.karraderan.org](http://www.karraderan.org)

**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18



## Castell-ak, zeruraino Derion

a: Aner Mentxaka

Katalan kulturak eta euskal kulturak bat egin zuten otsailaren 20an, Derion. Izan ere, Casal Bilbaok elkarteak Dantzan eraiki / Construir Ballant ekitaldia antolatu zuen Lainomendi dantza taldearen laguntzarekin. Egun osoko jaialdia izan zen. Besteak beste, castell tailerra eta tri-

kipoteoa egin ziren goizean, eta herri bazkariaren ostean, *castellars*-ek ikusteko aukera egon zen, Lleidako Unibertsitateko Marrocos taldearen eskutik. Lainomendi dantza taldeak ere hartu zuten parte ikuskizunean. Euskal Herriko eta Kataluniako dantzak, kultura, musika, *castell*-ak... uztartu ziren egun osoan zehar, Derion.



## Bertso-afaria, Zamudion

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak antolatu du martxoaren 18rako. Lubarrieta jatetxean egingo dute eta emakume bertsolari hauek bat-batean arituko dira: Iratxe Ibarra, Alaia Martin eta Onintza Enbeita. Afariak 15 euro balio du, baina 20 urtetik beherakoek 12 euro ordainduko dituzte. Txartelak martxoaren 15era arte har daitezke Estankoa eta Susterrak tabernan; 94 452 34 47 telefonoan edo lagatzu@lagatzu.org helbide elektronikoan ere eska daitezke.

## Derioko kiroldegia 25 urte bete ditu

Eta urteurrena ospatzeko, "Futbola eta balioen transmisioa" mahai ingurua egingo dute martxoaren 17an. Ekitaldia Kultur Birikan izango da 18:30ean, eta bertan Athleticen futbolariak hartuko dute parte. Horrezaz gainera, kiroldegia irudi berria aurkeztuko da jendaurrean. Bestalde, maiatzaren 20an Liga Solidarioaren lehen partida jokatu da futbol zelaian, 10:30ean. Liga Futbolari Beteranoen Elkartearen Espainiako Federazioak antolatu du eta, besteak beste, hauexek arituko dira: Athletic, Erreala, Eibar, Logroñés eta Mirandés.

## Zuhaitz Eguna, Lezaman

Martxoaren 6an izango da. Hitzordua Udaletxeko plazan ipini dute 11:00etan, eta handik udal lursail batzuetara abiatuko dira. Taldeak banatuko dira lan egiteko eta, besteak beste, zuhaitz espezie hauek landatuko dituzte: bertoko haritza, pagoa, lizarra, astigarra eta urkia. Lan ostean, hamaiketako eskainiko da eta umeentzako ekintzak egongo dira.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

**Zamudion**

Elkarte Teknologikoa, 105.  
T 94 431 71 36  
E zam@cianoplan.es

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
www.cianoplan.es

## Sondika

### Martxoak 6, domeka

–9:30-10:30: Martxan erabiliko diren peto moreak egiteko taillerra, Artebe kiroldegian.

–10:30: Martxa morea, herritik.

–12:00-14:00: Berdintasunaren aldeko manifestua irakurtzea, *flash mob*-a, giza katea, ipuin kontalaria eta txokolatada. Gurasoen elkartea – Sondika Mendian, eskola eta Udalak antolatua.

### Martxoak 12, zapatua

–20:00: Bazen berriro ere antzez-lana, SKEn. Ausartak Lezamako antzerki taldearen eskutik.

## Derio

### Martxoaren 1etik 31ra

–“Emakumea eta euskal pilota” erakusketa, Kultur Birikan.

### Martxoak 6, domeka

–“Derio berdintasunaren alde” martxa. Batutako dirua Gure Señeak elkarteari emango diote.

–10:15: Izena ematea, kiroldegian.

–11:00: Martxoaren 8ko adierazpena irakurri eta martxa herritik.

–12:30: Zumba eta guztientzako ekintzak.

### Martxoak 8, martitzena

–12:30: Adierazpen instituzionala, Udaletxeko eskaileretan.

–17:00: “Emakumeen estereotipoak kartelen bitartez” hitzaldia, Ana Prestamero hezitzailearen eskutik. Kultur Birikan. Sutondoan elkarreak antolatua.

–17:30: Rol jokoak, Ludotekan.

## Txorierrri morea

Martxoak 8 errebindikatzeko eta aurretik egindako lana gogora ekartzeko eguna da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta gizarte eredu parekidea helburu nagusiak izanda, ekintza sorta zabala antolatuko da gurean. Otsaileko alea itxi orduko ekitaldi hauen berri eduki dugu. Adi egon, gehiago egongo direlako.



## Larrabetzu

### Martxoak 4, barikua

–19:30: “Emakumeen eskubideen aldeko borrokaren historia abestien bidez” hitzaldia, Iñaki Berazategiren eskutik. Anguleri Kultur Etxean.

### Martxoak 6, domeka

–14:00: *Women in black* ekintza. Plazan.

### Martxoak 8, martitzena

–19:00: Elkarretaratzea eta emakumeen irratia. Plazan.

–19:30: Triki morea, kalez kale.

## Lezama

### Martxoak 6, domeka

–Emakumeen Eguna, Ludotekan.

### Martxoak 8, martitzena

–19:00: Elkarretaratzea, plazan. Moreak eta Laiak taldeek eta Udalak antolatua.

### Martxoak 11, barikua

–18:30: Kafe-tertulia, Uribarri Topalekuan. Moreak eta Laiak taldeek eta Udalak antolatua.

### Martxoak 13, domeka

–Berdintasun arloko tailerra, Ludotekan.





## Loiu

### Martxoak 4, barikua

- 15:00: Bazkaria, Loiu Hotelean. Izena ematea, bertan (15 euro).
- 17:00: Umorezko bakarrikzeta.
- 18:00: Karaokea eta dantza.

## Zamudio

### Martxoan zehar

- “Emakume idazleak” lehiaketa, liburutegian.
- “Neska eta mutil abenturazaleak” lehiaketa, Liburutegian.

### Martxoak 2, eguaztena

- 20:00: “Emakumea eta komunikabideak”, Ana Urrutia eta Urko Aristiren eskutik. Zamudiotarren. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

### Martxoak 5, zapatua

- 11:30: *Matilda eta Pirul* umeentzako ipuin saioa, liburutegian.

### Martxoak 8, martitzena

- 12:00 eta 19:00: Elkarretaratzea, plazan.

### Martxoak 11, barikua

- 18:00: Berdintasuna sustatzeko ekintzak, Ludoteketan.
- 19:00: Harremanak lantzeko tailerra, Gazte Estazioan.
- 19:30: *Berdintasuna ez da ipuin bat* antzezlan, Zamudiotarren.



## Ausartak, Lezamatik SKEra

Ausartak Lezamako antzerki taldearen partaideak eta zuzendaria buru-belarri dabilta beren azken lanaren entseguetan. Izan ere, martxoaren 12an *Bazen berriro ere* antzezlanaren eramango dute Sondikako Kultur Etxeko (SKE) eszenatokia. Lehen aldia izango da hori bezalako areto batean ibiliko direla eta “ilusionatuta eta, era berean, apur bat beldurtuta gaude”.

SKE antzezteko aukera Laiak Lezamako emakume taldearen eskutik etorri zaie. “Gaur egun arte, herriko Kultura Aretoan aurkeztu ditugu gure antzezlanak jendaurrean, baina leku eskasa da, eta elkartetik galdetu zitzaion Udalari ea beste nonbait egiteko aukerarik zegoen. Beharrezkoak egin ostean, Sondikan egin ahal zela erantzun zuten”. Ausartak-eko emakumeek eskertuta daude, baina errespetua diote SKE aritzeari. “Gure emanaldietara 60 lagun inguru etorri ohi dira, eta SKEk 196 lagunentzako tokiak du (lau toki elbarrituentzat). Erronka da guretzat, publikoari kalitatea eskaintzeko ahalegina beti egiten dugun arren, oraingo honetan jende gehiago egongo delako gu ikusten, eta ardura ere askoz han-

diagoa izango delako. Halaber, eszenatoki handiagoa da eta hura behar bezala bete beharko dugu. Detaleak ere arretaz zaindu beharko ditugu: arropa, argiak... Beste maila batean arituko gara!”.

Emanaldia iluntzeko 8etan hasiko da eta sarrerak ordubete bat lehenago ipiniko dira salgai leihatilan. “Aldez aurretik ere eskura daitezke Lezaman bertan”. *Bazen berriro ere* antzezlanari buruz, aurreratu digute protagonistak ohiko ipuinetatik ateratzen direla gaur egungo garaietara egokitzeke.

Ausartak antzerki taldea Laiak taldeak bultzatu zuen orain dela bederatzi urte, eta duela lau urte udal tailerra bihurtu zen. Entseguak “orain arte” emanaldiak eskaini dituzten leku berean egiten dituzte, Kultura Aretoan, eta beren egoera hobetzeko eskatzeko aprobetxatu dituzte lerro hauek. “Adibidez, komeriak egin behar ditugu oihala zabaldu eta ixteko. Batek alde batetik bultzatu behar du eta besteak, beste aldetik”. Lezaman “behar bezalako antzoki bat” eraikitzeke eskatzeko ere aprobetxatu dute aukera, eta jendea antzerki taldean parte hartzerantz animatzeko.



**EGUNEKO MENUA**  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria  
**9€**

Bestorene 5, Behe 48160 DERIO  
**T: 94 454 55 55**



**LANDARE APAINGARRIA**  
Gaitolza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



## Mozorroak kalean nagusi



a: Atomika Studio eta Idoia Andrés

Kolorean, imajinazioan, aldarrikape-  
nean, aurreko sasoieta, musika mun-  
duan, beste mundu batzuetan... murgil-  
duta ibili gara otsailaren 5etik 13ra bitar-  
tean. Inauteriak ospatu ditugu umore  
onez eta batez ere ondo pasatzeko  
gogoarekin, baina solidaritaterako mo-  
mentua ere izan dira. Horrela, bada,  
Loiun dirua batu dute Rett sindromea  
duen ume bati laguntzeko. Esan digute-  
naren arabera, 2.600 euro inguru lortu  
zuten eta dirua umearen tratamendura  
zuzenduko da. Rett sindromea garapen  
neurologikoaren gaitza da. Inauteriek  
solidaritatea, kolorea, dibertsioa, aldarte  
ona, mila aurpegi... utzi dizkigute aur-  
ten Txorierriin.



a: Gaizka Peñafiel



**TRADIZIOARI EUTSIZ.**– Ohikoa den lege, Txorierriko kintoak eta elkarteak  
etxetik etxe, auzorik auzo kantatzen ibili ziren Agate Deunaren Egunean.

**Peñasko**  
arraindegia



Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

**PATXI**  
KOOP



PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Herriko politzaria | Etxeak 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 387 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

**GORBEIA MERTZERIA**



Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**LEIRE BEGOÑA**  
ULE-APAINDEGIA



MUNGIALDE ETORRIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32  
Jarrai izaguru Facebooken

**KAFETEGIA**  
**IAZI**  
JATETKEA



Jata kalea, 2 – DERIO  
Tel.: 944 54 29 56

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
ORDEZKO TERAPIAK

*lasai*

**Luis M<sup>a</sup> Asensio**  
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69  
osteopatialasai@gmail.com





## Goiznabar Monclús | nomada geldigaitza

Proiektu zoro gehienekin gertatzen den bezala, Goiznabari eta lagun batzuei parrandan zeudela etorri zitzairen burura munduari bira emateko ideia. Zergatik ez? Garai hartan, lanean eta ikasten zebilen aldi berean, eta deskonektatu beharra zuen. Dena bertan behera utzi eta bi urtean mundutik zehar paseoan ibili zen EHUren laguntzarekin. Gauza asko pasa daitezke urte bitan, eta berez gertatu ziren: besteak beste, hiru bizikleta izan ditu hanka artean, eta auto batek harrapatu egin zuen Milanon, eta Bilbora itzuli behar izan zuen belau-na operatzeko. Baina horrek ez zuen gaztea geldiarazi eta errekuperatu ostean, berriro ekin zion bidaiari. Ikus-entzunezko komunikazio-ko azken kurtsoko ikaslea da eta gaur egun bidaiaren dokumentala editatzen dabil.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti  
[www.atomikastudio.com](http://www.atomikastudio.com) – [facebook.com/atomikastudio](https://facebook.com/atomikastudio)



**lezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritza klinika  
[www.consultorioveterinariolezama.com](http://www.consultorioveterinariolezama.com)

J.R. Galdona Madariaga  
BI-515



**Medikuntza orokorra**  
**Txertaketak**  
**Parasitoak hil**  
**Mikrotxipa**  
**Kirurgia**  
**EKG**  
**Analisiak**  
**Ospitalizazioa**  
**Ekografiak**

94 455 56 19    Aretxalde, 21bis    •    48196 Lezama

Centro Dental  
**Txorierri**  
905 475

IMQ  
REGON

Rocío Astorkia Bordegaray  
Kepa Herguedas Manso  
María Conde Bilbao  
Ainhoa Rodríguez Mella

Mitxine 6, beheko - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)  
T.: 944 711 639 - Larraldia: 670 985 885 - [www.txorierri.com](http://www.txorierri.com)



**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisol 4, beheko B    634 410 470  
48150 SONDIKA    [auzokidefincas@gmail.com](mailto:auzokidefincas@gmail.com)

# “Frustrazioa inportantea da autoestimua positiboa izateko”

t/a: Itxaso Marina

JUAN CARLOS ALONSO | psikologoa

## Seme-alabak haztea ez da lan erraza.

Umeek ez dakarte argibide-libururik eta, gainera, gurasoek jasotako heziketa eta informazioa ez ezik beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan, hala nola eskola eta gizartearen balioak. Eta gurasoek ere badaukate beren egoera. Ez da erraza, ez, baina inportanteena oinarri batzuk edukitzea da. Dena dela, gakoa ez da izugarritzko teoriak edo trikimailu magikoak erabiltzea, baizik eta sen ona erabiltzea.

## Heziketa hori era kontziente zein inkontziente batean egiten da. Biak dira garrantzitsuak?

Bai. Gurasoek hausnarketa kontziente bat egin behar dute seme-alabak zein baliotan hezi nahi dituzten inguruan, zein helburu lortu nahi dituzten, zeintzuk arau ipini... Baina gure izaerak, sentimenduek, jarrerak, esanek... ere eragin handia daukate umeen heziketan. Adibide bat ipintzearren: gezurrak ez dituela kontatu behar esan diogu umeari, baina telefonoak jo du eta bikoteari esan diogu, guretzat bada, esateko ez gaudela etxean. Umeak entzun digu eta, beraz, horrek nolabaiteko eragina eduki du bere heziketan.

## Ezinbestekoa da ezetza?

Heziketan, baietzak zein ezetzak dira ezinbestekoak. Baietzak goraipamenak dira, esfortzuak onartzea, maitasuna...; eta ezetzak frustrazioa dakar, mugak ipintzea... Batzuek diote frustrazioa gauza txarra dela, umea traumatizatu daitekeela. Nire ustez, berriz, umea traumatizatzekeo arrisku handiagoa dago frustratzen ez badaki. Frustrazioak irakasten dio ezin dela beti garaile izan, ezin duela beti nahi duena lortu... Inportantea da heltzeko, gara-

Psikologo donostiarra heziketan da aditua eta otsailean hitzaldi-sorta bati eman dio hasiera Derion. Hitzaldiak datozen hilabeteotan ere eskainiko ditu eta, besteak beste, gai hauek jorratuko ditu: seme-alabei autoritatea zelan txertatu, seme-alaben emozioak zelan landu eta teknologia berriak. Hitzaldiek gurasoei seme-alabak era egokian hezitzeko lagungarriak izan daitezkeen estrategiak eta erremintak ematea dute helburu.



*“Seme-alabak hezteko,  
ez dugu izugarritzko  
teoriarik erabili behar;  
sen ona baizik”*



## *"Autoritatea erabaki zintzoak hartzen ditugun heinean joaten gara irabazten"*

tzeko eta autoestimu positiboa izateko. Baietak zein ezetak dira inportanteak horretarako.

**Hala ere, guraso askok zailtasunak dituzte mugak jartzeko.**

Faktore asko daude eta haietako bat denbora falta da. Izan ere, mugak ipintzeak denbora eskatzen du, hau da, tematia izan behar zara, mugak mantendu eta ondorioak ezartzeko. Gainera, mugak uste osoz ipini behar dira, umeak ziur ez gaude-la ikusten badu, xantaia egin eta adarra joko digulako. Ezinezkoa da seme-alabak denborarik gabe hezte. Kalitatea kantitatea baino hobea dela diote, baina kalitatea emateko, kantitate gutxieneko bat behar da. Eta umeekin egon behar da jolasteko, hitz egiteko, heitzeko zein ezetza mantentzeko. Ez dut gurasoen bizitzan sartu nahi, baina batzuetan eskola edo familiaren esku uzten da seme-alaben heziketa, eta beharbada, denbora arlo bati edo besteari kendu beharko genioke seme-alabei eskaini ahal izateko.

**Guraso bi daudenean, horiek ados egon behar direla aspaldiko egia da.**

Bai, gatazka eta zailtasun handiak sortzen dira gurasoak ez direlako ados ipintzen. Gainera, umea aurrean ez dagoenean ipini behar dira ados, eta ez diote bikoteari inoiz indarra kendu behar. Baina adostasuna ez da bakarrik bikotearen artean egon behar, eskola eta familiaren artean egotea ere ezinbestekoa da, helduen artean adostasuna ez egoteak umeengan ziurtasunik eza sortzen duelako.

**Autoritatea gurasoek berez daukaten ezaugarria da, ala irabazi behar dute?**

Heziketan, autoritatea eta autoritarismoa bereizi behar ditugu. Autoritarismoa agintearen menpean eta agintearen ondorioz inposatutako ezaugarri bat da; eta autoritatea, orde, hitz positibo bat da. Autoritatea umeek ematen digute, eta gu hura irabazten joaten gara erabaki zintzoak eta bidezkoak hartzen ditugun heinean, seme-alabak errespetuz tratatzen ditu-

## Literaturaren bidezko heziketa

Juan Carlosek pasioz bizi du bere lana. Donostian kabinetea izateaz gainera, institutu batean dabil psikologo, eta gurasoei zuzendutako hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen ditu han eta hemen. Era berean, haur literaturgintzan diharduen Galtzagorri elkartearen kidea da. Bere ustez, literatura tresna ezin hobea da umeak heitzeko. "Bizitzan gertatzen dena, bere sentimenduak, gatazkak... hobeto ulertzen laguntzen die. Balioak ere ikasten dituzte eta beren barrualdearekin ipintzen dira harremanetan. Umeek estimulu pilo bati egin behar diete aurre esnatzen direnetik oheratzen diren arte, eta ipuinak entzuteak edo irakurtzeak lasaitasuna ekartzen die, sosegua, isiltasuna, sentimenduak barneratzeko aukera... Oso tresna egokia da guraso eta seme-alaben arteko komunikaziorako".

gun heinean, ziurtasuna ematen badiegu... Hala ere, egia da batzuetan gauzak inposatu baino beste erremediorik ez dagoela, umeak ez duelako kasurik egiten. Ez da horregatik traumatizatuko.

**Oraitxe aipatu duzu: umeak errespetuz tratatu behar dira.**

Jakina! Seme-alabek besteak errespetuz tratatzea nahi badugu, guk errespetuz tratatu behar ditugu. Gainera, umeak oso ondo konturatzen dira errespetuz nortzuek tratatzen dituzten, eta nortzuek ez. Entzun behar diegu, eta beren bizipenak eta sentimenduak kontuan hartu. Baina neurri batean, ezin ditugulako orduak eta orduak eman gauzak aztertzen eta azaltzen.

**Umearengan, gurasoek ez ezik eskolak, familiak, gizarteak... ere eragina dutela esan duzu hasieran. Zelan uztartu horiek guztiak?**

Inportanteena etxekoa da: gurasoek zer uste duten, umeari zein balio helarazi nahi dizkioten, erabakiak uste osoz hartzen dituzten... Dena dela, horrek ez du esan nahi oso zorrotzak izan behar garenik: guk esaten duguna eta kito. Baina umeak saketako telefonoa, bere lagun guztiek dutelako, eskatzen badugu eta horretarako behar beste adinik ez duela uste badugu, bada, ez diogu erosten eta kito.

**ARINKA KASTEGIA**  
Goiko kalea, 6 DERIO

LH - DBH - BATX.  
INGELES  
MARRAZKETA  
ERROBOTIKA

TAILERRAK eta  
ESKOLA LAGUNTZA

**944 544 753**  
**695 78 77 74**

www.arinkakopidenda.com  
arinkaikastegia.blogspot.com

**Carrefour**  
express

**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**LEANDRO LANDETA**

HARAGITEGIA-URDAITEGIA  
Oie Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

# “Euskal dantzak, kantuak, bizitzari begiratzeko modu bat dira”

t: Itxaso Marina

## Zelan sortu zan dokumentalean parte hartzeko aukerea?

Aiko taldea batez be amarengandik ezagutzen dot. Dantzariak behar zituen dokumentalerako eta gurasoak, ahiztea eta laurok parte hartu genduan baserri baten grabau zan zatian. Gerra garaiko erromeria bat izango bazan moduan atondu zan lekua. Dokumentalaren beste zati bat Bizkaia Aretoan, EHUn, grabau zan eta han be ibilteko deitu eusten. Zati horretan, alde batetik, dantzarien irudiak, dantzan; eta bestetik, Jon Maia, Juan Antonio Urbeltz, Ansorena... moduko dantzari finen berbak batu ditue.

## Zein da *Jotamentala* lanaren helburua?

Jotea dantza talde inguruko zerbait izango bazan moduan erabiltzen dogu batzuetan, baina, egia esan, bakotxak gura dauan moduan dantzatu daike. Pausuak ez doguz zertan ordena zehatz baten emon; pausu pilo bat dago eta bakotxak berea aukeratu daike. Dokumentalean ikuspuntu horretatik aurkezten deuskue jotea, eta lehen, zein egoeratan edo zertarako erabiltzen zan be kontetan deuskue. Esate baterako, ligetako.

## Esperientzia polita?

Oso, jente pilo bat ezagutu dodalako. Eta aberasgarria be, dantzan egin gura dodan ibilpiderako. Dokumentala grabaten ibili nazenean, baita Itxas Alde Bakioko dantza taldeagaz egin dodazan bidaietan be, ikusi dot han eta hemengo jenteak badaukagula zerbait lotzen gai-

*“Eguneko ordu gehienak emoten dodaz kantetan, etxekoakaz, lagunakaz, neu bakarrik...”*

## KATALIN ZARATE ARRIETA | kulturen murgilduta

Aiko taldeak *Jotamentala* dokumentala estreinau barri dau eta gazte lezamarrak dantzari moduan hartu dau parte bertan. Katalinek oso harreman estua dauka euskal kultura eta folkloreagaz, eta harreman hori hain zuzen be euki dogu hizpide. Baita *Jotamentala* be, jakina.



tuana, oso ezbardinak izan arren. Dantza inguruan beste ikuspegi zabalago bat eukiteko be izan da lagungarria. Horrek guztiak asko aberasten nau.

## Noz hasi zan zure harremana euskal kulturagaz?

Txikitatik euki dot oso harreman estua euskal kulturagaz, bertan jaio eta hazi garalako. Gazte-gazterik sartu nintzan Itxas Alde dantza taldean eta hor jarraitzen dot gaur egun. Bertoko Zamudioko alkartean be banabil panderoa eta trikitia jotzen. Bestalde, askotan joaten gara Zuberoara. Askot maite dot Zuberoa eta amarengandik jaso dot harenganako loturea; kantak berarengandik ikasi dodaz, eta dantzak, oster, Santutxuko Gaztedi dantzari taldearen eskutik. Bertan, Santutxun, zuberotar dantzak ikasteko

aukera izan neban, eta aitite be Gaztediko dantzaria izan zanez gogotsu hasi nintzan. Gaztedikoakaz lehen maskarada manexa edo kanpotarra egin genduan Zuberoan bertan... Etxean asko kantetan dogu, eta klaseak be jasoten dodaz. Horri esker, Lezamako Astrapala proiektuan sartu nintzan eta *Maya erlea* marrazki bizidunen hasierako sintonian ipini dot ahotsa. Horrelakoetan ezagutu dot nire estiloko eta euskal kulturen murgilduta dagoan jente asko, eta banoa nire ibilpide kulturala eraikitzen.

## Pentsatzen dogu horreek guztiak osagarriak dirala zuretzat. Baina zein gurago?

Dantzea eta abestea. Horrek biek nire bizitzaren zati handi bat hartzen dabe. Eguneko ordu gehienak emoten dodaz



## Kazetaria, Gernika pelikulean



Katalinek zineman be emon ditu lehenengo urratsak, *Gernika* pelikulean estra ibili dalako. "Castingaren barri euki neban Interneten bidez. *Zergaitik ez?* pentsau neban eta ha egiten ebiltzan lekura azaldu nintzan. Paperak bete, argazki batzuk egin eta listo. Ibilaldian nengoala, eta castinga ahiztuta neukala, dei bat jaso neban eta galdetu eusten ea hurrengo egunean Barakaldon, Munoa jauregian, egon neintekeen, filmetako. Baietz erantzun neban, jakina! Ni pozarren".

Arropa, pelukeria eta makillaje probak egin ostean, kazetari kanpota-

rra bihurtu zan lezama-rra. "Hiruzpalau egun emon nebazan grabaten. Gogorra da, aktore nagusien lanaren zain ibili behar dalako, zelan daroen hareek filmazioa... Ez dakizu noz dan zure txandea eta bat-batean esaten deustue. Baina orokorrean oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da. Lehen egunean, estrak alde batera itxi ginduezan, baina hori jentehiegi gengo zalako

izan zan, beharbada. Eta hurrengo egunean, oso ondo; giro ezin hobea sortu zan makillatzaileakaz, kameralariakaz, aktoreakaz...".

Gernika laster estreinauko da eta Katalin bere burua pantaila ikusteko irrikan dago. "Ez dot barbarik egiten. Kazetariak lan egiten dauan komunikabidearen egoitzea Munoa jauregian dago, eta nik leku batetik bestera eroaten dodaz paper batzuk. Ea zelan lotu dan!". Beste pelikula baten errepikatu-ko leuke? "Jakina! Oso gustura egon nazalako eta esperientzia gustau jatalako".

*"Emoten dau dantzea oso gauza sinplea dala, baina leku guztietan dago eta bere pisua badauka"*

**Gazteak euskal kulturara erakartea gatxa dala dinoe.**

Beno. Hainbat erromeria mota dago eta danak dodaz gustuko. Esate baterako, Aiko taldeak egiten dituanetara eta ohiko euskal dantzak dantzatzen diranetara be gustura joaten naz. Baina egia da batzuetan apur bat lekuz kanpo sentiduten zara- la, zure adineko gazte gitxi dagoalako. Dana dala, han eta hemen zabilzan- ez, akabuan zure kezka dituen beste gazte batzuk ezagutu eta harremanak lantzen dozuz.

**Itxas Alde dantza taldeagaz egin- dako bidaiak aitatu dozu hasikerean. Nondik ibili zarie?**

Lehen bidaiak Galiziara egin neban, eta gero Kroazian, Txekian, Estonian... izan gara. Beste kultura batzuk ezagutzeaz gainera, aukerea emoten deustu besteakaz bardintsu daukaguna ezagutzeko, eta zer faltetan jakun be aztertzeko. Emoten dau dantzea oso gauza sinplea dala, baina ikusten dozu leku guztietan dagoala eta bere pisua daukala. Ni asko beteten nau. Ea aurtien Poloniara joaterik daukagun.

**Hamazortzi urte daukazuz, oso gaztea oraindino. Zer ikasten zabilz eta zertan gustauko litxakizu ibiltzea?**

Magisteritza nabil ikasten eta musikan espezializau gura neuke. Irakaskuntzan ibiltzea gustauko litxakit, eta espero dot gaur egun arte egindako eta egingo dodan ibilpidea lanerako lagungarria izate- a. Bestalde, hasi naz Bakion dantzak irak- sten, umetxoei zein helduei.

kantetan, etxeoakaz, lagunakaz, neu ba- karrik... Dantzeari, beharbada, ez deustat hainbeste denpora eskaintzen, entsegue- tara joan behar danez, mugatua dalako.

**Zer dira zuretzat euskal dantzak, kantuak... kultura?**

Bizitzari begiratzeko modu bat, eta bizitzeko modu bat. Bideak bertatik eroan nau... ez dot nire bizitzea dantza


eta kantu barik imajinaten. Ezinbestez gorde eta mantendu behar doguz, eta bilakaerea izatea ahalbidetu. Azken ba- ten, gure historiaren zati handi bat dira eta hortik abitautu be sortu dira hainbat gauza. Gure egitekoa hori mantentzea eta jarraitzea da, izan be ezin da zer garan hain erraz ulertu, zer izan garan jakin barik.

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**  
Birkalko Txakolina  
Birkalko Txakolina  
Goitoltza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

**Altzari**  
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.  
Zureko lanetan espezialistak  
Alain Pomposo Zarate  
946 740 141  
663 209 209  
www.altzari.com  
altzari@altzari.com  
Luisene, 2 - Belako Elkarte, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

**TURREGOITI**  
JATETXEA  
Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Laju-Bizkaia  
T-Fax: 94 453 24 40  
restauranteturregoiticom

# 2016ko osasunaren aldeko lasterk



Martxa txikia (6 km)



Helduen martxa eta lasterketa (10 km)

## Apirilaren 17an, Larrabetzu eta Lezama artean

Osasunaren aldeko lasterketa-martxaren hirugarren edizioa apirilaren 17an, igandean, egingo da Larrabetzu eta Lezama artean. Martxa txikia eta helduen martxa 10:00etan aterako dira Larrabetzuko Udaletxeko plazatik; lasterketa, berriz, 11:00etan irtengo da toki beretik.

## Ibilbideak

Ibilbideen luzera aurreko urteetakoan berdina izango da: martxa txikiak, sei kilometro; helduen martxak, 10 kilometro; eta lasterketak, 10 kilometro. Dena dela, martxa txikiak beste ibilbide bat edukiko du aurtan, helduen martxatik eta lasterketatik bereizita.

## Kamisetak

Kamiseta, epe barruan izena ematen duten eta kamisetaren neurria adierazten duten pertsonen baino ez dute jasoko. Hala, lasterketa-martxaren egunean bertan izena ematen dutenek ez dute kamisetarik jasoko, antolakuntza arrazoiak direla-eta. Helduen izen emateak bost euro balio du; 14 urtetik beherako haurrenak, hiru euro.

## Izena emateko epea

Parte hartu nahi duten pertsonen izena emateko orria bete beharko dute. Orri hori leku hauetan dago eskuragarri:

–Lezama, Sondika, Loiu eta Larrabetzuko liburutegietan, Zamudioko Udaletxean eta Txorierriko Mankomunitatean.

–Artikulu honetan

–Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen webgunean eta hura osatzen duten Udal guztien webgunean.

Izena emateko orria bete eta ordainketa Mankomunitatearen kontu honetan egin behar da: ES81 2095 0216 26 2035010339. Ondoren, izena emateko orria eta ordainketa-ziurtagiria lehen aipatutako lekuetako batera eraman beharko dira, martxoaren 7tik apirilaren 4ra bitartean. Mezu elektronikoko bidez ere bidali ahaliko dira helbide honetara: [ekt@txorierri.eus](mailto:ekt@txorierri.eus).



## Bildutako dirua

Izen ematetik lortzen den dirua elkarte hauentzat izango da:

–**Garmitxa:** gaixotasunak oraindik ez du izenik eta hura pairatzen duten umeez ezin dute elikagai arruntik jan. Aminoazido prestakin bat hartzen dute elikatzeko.

–**AprendeTEA:** espektro autistaren nahasmenduak eta Asperger dituztenen prestakuntza eta aisia familian sustatzeko elkarte da.

–**Aspace:** elkarte honek, garuneko paralisia edo antzeko gaitzen bat duten Bizkaiko pertsonen eta haien senideek bizi-ziklo osoan zehar bizi-kalitate integrala eta aukera-berdintasuna izatea du helburu, gizartearen parte hartu ahal izatea eta erabakitze gai izatea. Horrez gain, aniztasuna errespetatzen duen gizarte inklusiboago bat lortzeko ere egiten dute lan.

–**Cornelia de Lange sindromea:** sindrome hau gaitz genetikoa da eta duela gutxi arte ez zen bere jatorria ezagutzen. Organo askori eragiten die eta ez ditu beti sintoma larriak izaten. Aurpegiera aztertuz detektatzen da. Mikrozealia eta adimenezkeratasuna ohikoak dira (nahiz eta ez diren beti agertzen), eta jaio aurreko zein jaio ondorengo hazkuntzan eragin dezake. Horrez gain, gorputz-adarretan malformazioak eragin ditzake. Elkarrearen helburua, gaixotasun hori duten familiei laguntza ematea da, haien seme-alaben bizi-kalitatea hobea izan dadin. Sindromeari buruzko ezagutza ere sustatzen eta hedatzen





# eta-martxa

dute osasun-arloan, hezkuntzan eta gizar-tean, oro har. Bestalde, sindromeari bu-  
ruzko aurrerapen zientifikoak eta ikerke-  
tak ezagutarazi eta babestu nahi dituzte  
hala arlo mediku-sanitarioan nola psiko-  
pedagogikoan eta sozialean.

## Puzgarriak eta autobusak

Doako autobus bi ipiniko dira. Auto-  
busak 9:00etan aterako dira Lezamatik,  
Larrabetzura joateko. Martxa eta lasterke-  
ta bukatu ondoren, Larrabetzura itzuliko  
dira. Helmugan (Lezama), puzgarriak  
egongo dira eta kiroldegiko duxak erabi-  
li ahal izango dira.

## Aurreko edizioak

Osasunaren aldeko lasterketa-mar-  
txaren lehenengo edizioa 2014ko apirila-  
ren 6an egin zen, Derio eta Zamudio arte-  
an. Hiru modalitate egon ziren: helduen  
lasterketa, helduen martxa eta martxa txi-  
kia; eta orotara 406 pertsonak (208 emak-  
ume eta 198 gizon) hartu zuten parte  
bertan. 1.600 euro bildu ziren, eta Derio-  
ko Gure Señeak elkarteak jaso zuen diru  
hori. Elkarte horren helburua gaixotasun  
arraroren bat edo ezgaitasun bereziren  
bat duten Derioko haurren eta haien  
familien bizi baldintzak hobetzeko beha-  
rrerakoak diren neurri guztiak har daiteze-  
la sustatzea da.

Osasunaren aldeko lasterketa-mar-  
txaren bigarren edizioa 2015eko apirila-  
ren 12an egin zen, Loiu eta Sondika arte-  
an. Kasu horretan, 635 pertsonak hartu  
zuten parte (307 emakume eta 328 gi-  
zon). Gehienek (% 54) helduen martxa  
egin zuten; % 29k, martxa txikia; eta %  
17k, helduen lasterketa. 2.936,20 euro bil-  
du ziren, eta diru hori Txorierriko sei elika-  
gai-bankuak kudeatzen dituzten sei era-  
kunde edo elkarten artean banatu zen,  
elikagai-banku bakoitzak zenbat erabil-  
taile dituen aintzat hartuta.

**Zuen partaidetza oso garrantzitsua  
da; horregatik, parte hartzera anima-  
tzen zaituztegu!**



| OSASUNAREN LASTERKETA-MARTXA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |  | TXORIERRIKO<br>MANKOMUNITATEA |  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|-------------------------------|--|
| IZENA: _____<br>ABIZENAK: _____<br>JAIOEGUNA: ____/____/____<br>SEXUA: _____ HERRIA: _____ NAN: _____<br>KAMISETA: 4 6 8 10 12 S M L XL XXL<br>ZEIN IBILBIDE EGINGO DUZU?<br>HELDUEN KARRERA <input type="checkbox"/><br>HELDUEN MARTXA <input type="checkbox"/><br>MARTXA TXIKI: <input type="checkbox"/><br>FEDERATUTA ZAUDE? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> |  |                               |  |
| Informazio gehiago: <a href="mailto:ekt@txorierri.eu">ekt@txorierri.eu</a> 94-4540350<br>BBK: ES81 2095 0126 2 6 20-3501033-9<br>EL CORREO PATXI COOP Coca-Cola Iorgi                                                                                                                                                                                                                    |  |                               |  |



# "Euskal Herrian ez dugu inolako elikadura-burujabetzarik"

MARTIN BARRIUSO | nekazaria

Zamudioko Azoka azaroan egin zen, eta postuen artean Ekoganguren ikusi genuen. Bertan Martin Barriuso zegoen (Bilbao, 1965). Bilbotarra ezaguna da komunikabideetan kolaborazioak egiteagatik eta kanabisa legalizatzearen aldeko mugimenduaren kidea izateagatik. Gaur egun, Zamudion egiten ditu mermeladak, eta ekoizle txikien garrantzia azpimarratu digu.



**Hortz-klinika**  
**IDOIA ZUBIETA**

**Osasun-zentroa & Hortz-estetika**  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Añeltza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

Tel./fax: 94 452 06 64  
Torrelarragoiti ind. P-7  
48170 Zamudio (BIZKAIA)

**Restaurante**  
**JANA JAETXEN**

Eguneko menuak  
Menu bereziak  
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**

Sukalde eta bainugeletako harriak  
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2



t/a: Gaizka Eguzkitza

Martin Barriusok "saltsa guztietako perrexiltzat" jotzen du bere burua. Ez da harritzekoa, bere lan ibilbideari erreparatzen badiogu: Filosofia ikasi bazuen ere, euskara irakaslea eta tramoaria izan da, eta inkestak ere egin ditu gainera, baita kartelak pegatu ere. Martin Bilboko Udaleko funtzionarioa da, baina aspalditik dago eszedentzian. Bitartean, kanabisa-ren legalizazioaren aldeko mugimendua-ren kide nabaria izan da. Gaur egun, hainbat komunikabidetan kolaborazioak egiteaz gain, mermeladak ekoizten ditu Sandoni auzoan, Zamudion. Saltsa guztietako perrexila baino, marmelada guztietako fruta da Martin.

"Nire andrearekin batera egiten dut lan. Bera nekazal familia batean hazi zen eta eskarmentua du. Bera da ustiapenaren titularra eta bera da hemen ordu gehien sartzen duena", esan digu Martinek. Zamudion lan egin ez ezik, bikoteak bertan bizi ere nahiko luke, baina legeak ez die uzten. "Hasiera-hasieratik dakigu lur honetan ezin dela bizi, eta horregatik jo genuen Zamudioko Udalera. Poz-pozik jarri ziren, jende gaztea ginelako, baina izapideak egin ostean ez digute birkalifikaziorik eman. Behin baino gehiagotan eskatu dugu, baina alferrik". Birkalifikatze prozesua oso nekagarria eta garestia da. "Egunen batean Udalak onartu beharko du guri lagundu behar digula. Gurea bezalako auzoak desagertzen ari dira, eta Administrazioek argi eduki behar dute baserri bati eustea errekuaratzeko baino askoz merkeagoa dela. Baserri bat abandonatzen denean, mendeetako lana galtzen da".

Oztopoak oztopo, Martin pozik dabil Zamudion. "Lekua eta proiektua politak dira, eta aurrera goaz apurka-apurka. Gure marka daukagu, Ekoganguren, eta hainbat motatako marmelada ekologikoa egiten dugu. Horretaz aparte, etorki-



zunean zukuak eta kontserbak egiteko asmoa dugu: azaloreak, lekak... Zorionez, marmelada ekologikoaren eskaera bada- go egon, baina oso ekoizle gutxi gaude". Fruta Sandoniko baserrian ekoizten dute, eta marmelada Urduñan. Han kooperati- ban dabilzan baserri- talde batek be- har den tresneria erosi du, gastuak mu- rritzeko.

Marmeladak egin baino lehen, ka- poiak hazi eta otzara ekologikoak presta- tzen hasi ziren. "Kapoia- laster utzi behar izan genituen, hiltegi baimendu batean baino ezin direlako hil. Eta gertuena Segovian dago. Otzara ekologikoak egi- teari ere utzi behar izan genion, batez ere neguan kristoren esfortzua egin behar delako barazki aniztasunari eusteko. Mar- meladak egiten ditugunok pribilegiatuak gara, esate baterako, oporrak hartu ahal ditugulako. Hori nekazaritzan luxu hutsa da".

#### 7.000 pote urtean

Martinek denda gutxi batzuetan sal- tzen du marmelada, baita ekoganguren. com webgunearen bidez ere. Baina batez

*"Baserri bat  
abandonatzen  
denean, mendeetako  
lana galdu egiten da"*

ere Zamudioko Azoka bezalako ekitaldie- tan saltzen ditu. "Horietan jendeak dasta- tzeko aukera du eta askoz errazagoa da erosleak erakartzea. Aurten 7.000 pote inguru ekoiztu ditugu, baina horrek ez du bizitzeko ematen, erdia transformazioan doalako: kristalezko poteak, etiketak eta azukreak... Guztira, 42 zuhaitz-espezie ez- berdin ditugu ustiategian eta asmoa da ezohiko zaporeak eskaintzea, bereziak izateko".

Baserritarra izateak alde txarrak ditu, noski, baina Martinen iritziz, baita alde onak ere. "Ez dugu nagusirik, ordutegia zeuk markatzen duzu, naturan edo aire zabalean lan egitea oso polita da, izugarri ikasten duzu... Jendeak uste du baserrita-

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean  
Auzokomunitateak  
Mantentze garbi-ikatzak  
Bulegoak eta lokalak  
Oliniko enpresako garbiketa  
Lanetarako  
Zaberi billete

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**MARMOLGINTZA**  
**GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK OIBAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea  
48160 Derio, Bizkaia  
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**HABAGITEGIA**  
**URDAGITEGIA**  
**IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2  
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskemik asko  
etortzeagaitik

## “Kanabisa normalizatuko da”

Martin ezaguna da kanabisaren legalizazioaren aldeko mugimenduari kide nabaria delako. “Mundu horretan sartu nintzen nire auzoan, Errekalden, drogak kalte handia ekarri zuelako. Fernando Savaterren artikulua bat irakurri nuen eta horrek adibide bat aipatzen zuen: imajinatu alkohola ilegala dela, amoniakoarekin nahasten dela, litro batek 1.000 euro balio duela... Zer gertatuko litzateke? Problema ez da droga bera, droga kudeatzeko era baina”.

Handik aurrera, Martin hainbat elkartetan ibili da marihuanaren legalizazioaren alde borrokatzen: besteak beste, Bizitzan, Kalamudia eta Pannagh. Horien ondorioz, “ospetsu” egin zen eta justiziarekin arazoak izaten hasi zen. Gaur egun, Pannagh auzia dela-eta, Auzitegi Gorenak urtebete eta zortzi hilabeteko kartzela-zigorra eta 250.000 euroko isuna ezarri dizkio.

“Arazoa ez da jendea, Espainiako Auzitegi Gorenean kobazulotik ateratako epaile atzerakoi batzuk baizik. Iritzi publikoaren gerra irabazi dugu, eta ziur nago kanabisa egunen batean normalizatu egingo dena. Guk eredu misto bat aipatzen dugu: edo zure etxean landatu; edo elkarre baten barruan; edo denda batean erosi.

Kontsumitzaileek eurek kontratatutako sistemak dira egokienak, ez saltzaileen menpe daudenak”.

### Damurik ez

Arazoak izan arren, Martin ez da damutzen. “Bai, batzuek prezio handia gabiltza ordaintzen, errepresioa oso bortitza delako. Hala ere, oso harro nago orain arte egindako ibilbidearekin. Duela 20 urte Euskal Herrian drogekin zegoen jarrera eta gaur egun dagoena erabat ezberdina dira, eta neurri handi batean izan da guk aurpegia eman dugulako, eta kanpaina handiak egin ditugulako. Jende gehiena konturatu da ez dagoela arrazoirik kanabis kontsumitzaileak alkohol edo tabako kontsumitzaileak baino okerrago tratatzeko”.

Gainera, bere militantziari esker, pertsona arruntek egin ezin duten zenbait gauza egiteko aukera izan du. “Esate baterako, hainbat herrialdek gonbidatu egin gaituzte gure jarreraren berri emateko, hainbat agintarirekin ibili naiz, izugarritzko esperientziak bizi izan ditut, izugarritzko lagunak ezagutu ahal izan ditut, gizarte-lan polita egin dugu... Nire etxean kikilduta gelditu banintz, ez nituzkeen horrelako gauza politikak egiteko aukerarik izango”.



*“Erosleak kontzientzia hartzen ez badu, lau ekoizle handik erabakitzen dutena baino ez dugu jango”*

*“Sistema guztiak daude diseinatuta ekoizle handiei mesedea egiteko, eta txikiak baztertze”*

rra ergel hutsa dela, baina nire ustez guztiz kontrakoa da, denetarik jakin behar delako baserritar ona izateko, eta nekazaritza ekologikoa lantzen baduzu, jakintza tekniko handiagoa izan behar duzu: lurren dinamika, entomologia, botanika eta gero, jakina, mekanika, elektrizitatea, iturgintza... Antropologoek diote neolitiko garaiko gizona mespretxatu egin dela, baina gaur egungo unibertsitateko ikasle batek baino asko gehiago zekien naturaz eta bere inguruaz”.

### Nekazaritza industrial

Martinen ustiapena txikia eta ekologikoa da, eta bere arerio nagusia nekazaritza industrial da. “Sistema guztiak daude diseinatuta ekoizle handiei mesedea egiteko eta txikiak baztertze. Esate baterako, Europar Batasunak aldatuko du etiketatze araudia. Ondorioz, balio nutrizionala zehaztu egin behar da, eta hori jakiteko produktu guztiak eraman behar dira laborategira, bertan aztertze. Horrek pilo bat balio du, eta ekoizleek ordaindu behar dugu. Enpresa handi batek 2 milioi pote ekoizten ditu urtean; guk, aldiz, 700 zapora bakoitzeko. Horrelako tontakeriekin ito egiten dituzte ekoizle txikiak. Eta erosleak kontzientzia hartzen ez badu, lau ekoizle handik erabakitzen dutena baino ez dugu jango”.

Horrek elikadura ereduarekin egiten du bat. “Euskal Herrian, edo Euskal Erri-degoan behintzat, jaten dugunaren % 5a baino ez dugu guk geuk ekoizten. Ez dugu inolako elikadura-burujabetzarik. Ne-



kazaritza industrialak inbertsioa eta energia gastu handiak eskatzen ditu, eta gaur egun sostengarria da petrolio merkea delako. Baina etorkizunean ez da horrela izango. Nekazaritza ekologikoak gabiltzanok, aldiz, beste gauza batzuk hartzen ditugu kontuan eta gure produktuak osasuntsuagoak eta goxoagoak dira. Aukeratu behar dugu: epe luzera sostengaezina izango den sistema, epe laburrean elikagai merkeagoak baina kalitate txarrekoak ekoizten dituen, ala momentuz hain errentagarria ez den beste sistema, baina luzera begira sostengarria eta produktu hobeak eta goxoagoak ekoizten dituen.

Martinen iritziz, neurri batean nekazaritza ekologikoak erantzuna eman ahaliko lioke krisialdiari. "Ez dut ulertzen langabezia tasa: ditugun mendiak eta elikagai defizita ikusita, zergatik ez dago mobilizazio nazional bat gure nekazaritza naturala berreskuratzeko. Azken batean, gauzak zure auzoan ekoizten badira, badakizu nondik datozen, dirua zeure inguruan gelditzen da eta askoz independenteagoa zara, dena ez delako gutxi batzuen poltsikoetan gelditzen".



## Txorierriko Udal Euskaltegiko Txoritokia

PUBLIZITATEA



**Ostegun gizen, eguen zuri, eguen gizen, eguen lardero.** Aratusteetako osteguna. Era askotako aipamena dugu hau, eta Txorierriko Udal Euskaltegiko ikasle-irakasleek ere ospatu dute euskaltegiko VI. Tostada lehiaketa egun honetan. Hainbatek hartu dute parte goizeko, eguerdi, arrasti eta gaueko saioetan, baina hainbatek ere lehiaketetatik kanpo erakutsi nahi izan dituzte garaiotako postre gozo honen bertuteak.

Goiko argazkian, saioko partaideetako batzuk.

### Agenda

- Otsailaren 17an, Parke Teknologikoan UPV-EHU-ek IBEA taldea Kimika analitiko sailerako bisitaldia. Kultur ondarea eta Ingurumen inguruko ikerketen berri argituko dizkigu bertako langilea eta Euskaltegiko ikaslea den Julene Aramendiak.
- Martxoaren 2an, Kultur Birikan arrastiko 18:00etan eta edonorentzako zabalik, Zamudioko Arroeta mendiko partaidea den euskaltegiko Iñigo Apoita ikasleak Indiako Chalung (6.546 m) mendirako bidaia azalduko du.
- Martxoaren 10ean, Kultur Birikan goizeko 10:00etan berriro Iñigo Apoitak Chalung mendira egindako igoeraren berri entzuteko aukera egongo da.

# Baserria loratzen ari da



Gonzalo López, INBISAren  
 negozio garapenerako  
 zuzendaria

a: Atomika Studio

INBISA enpresa Baserri Antzokiaren eraikitze lanak egiten dabil, BYCO bere enpresa eraikitzailearen bitartez. Gonzalo López INBISAren negozio garapenerako zuzendaria da eta, azaldu digun moduan, "egurrezko estruktura eta estalkia ipini dira, eta igeltsero lanak egiten ari dira faxadan, baita hori inpermeabilizatzeko lanak ere. Era berean, klimatizazio eta aireztatzeari lotutako lanei ekin diegu". Bere esanetan, aurreikusten da Baserri Antzokia "maiatzaren 30erako amaituta egotea". Eraikina zabaltzeko, beste hila-bete bat beharko da.

Txorierriko Baserri Antzokia 5.400 metro koadroko gunea izango da. Solairu bakarra edukiko du eta bertan taberna, jantokia, pista, eszenatokia eta lau txoko atonduko dira. Aparkalekua eta terraza zabalak egongo dira kanpoaldean. "Erabilerara anitzeko gunea izango da kanpoalde. Barrualdeari lotuta egongo da, eta eraikinak berak eta zuhaitzek osatuko dute, errekararen balio naturala eta estrategikoa indartuz", aipatu digu Maialen Armendariz arkitektoak. Eraikina bere estudioan diseinatu da, eta Euskal Herriko

Urrian, Baserri Antzokiaren lehen harria jarri zen Zientzia eta Teknologia Parkean, Derion. Eraikitze-lanak martxa ezin hobea daramate eta espero da erakina maiatzaren amaierarako bukatuta egotea. Aurreikuspenen arabera, Baserri Antzokiak udarako zabalduko ditu ateak, eta hala egin bezain laster, euskal kultura eta euskaltzaleen topagune bihurtuko da.

*Irizpide tradizionalak  
 kontuan hartuta, harria,  
 egurra eta kristala  
 aukeratu dira  
 eraikina egiteko*

ohiko baserria hartu dute oinarritzat horretarako. "Baserriaren irudia imajinatzen dugunean, forma xumea eta konpaktua duen eraikuntza datorkigu burura, bi isuraldeko teilatua duena, eta atxikita beste atal edo eraikin bi dituen. Lurrearekin kontaktuan dagoen kanpoko azala ha-

rrizkoa da, pisutsua eta sendoa, eta barruko egurrezko egitura, berriz, arina eta epela".

Formen sinpletasuna ez ezik materialen sinpletasuna ere bada baserriaren ezaugarria. Irizpide tradizionalak kontuan hartuta, hiru material hauek aukeratu dira eraikina egiteko: harria, lurrearekin kontaktuan dagoen edukiontzi moduan; egurra, egitura nagusi moduan; eta kristala, kanpoalde eta barrualdearen arteko lotura ahalbidetzen duen elementu gardena moduan. Baserri tradizionala gehienbat eraikin jasangarria izateagatik bereizten da, eta Baserri Antzokiak ere egin du jasangarritasunaren aldeko apustua. Horrela, bada, energia aurrezteko neurriak hartu dira, prestazio altuko gainazal



## Eraikin jasangarria izango da eta irigarritasun-irizpideei jarraitu zaie diseinatzeko orduan

termikoa eraiki baita. Gainera, energia berriztagarriak erabiliko dira eraikina klimatizatuzko, eta ingurunea zainduko da horrela.

### Epela eta atsegina

Baserria Euskal Herriko arkitektura tipologiarik adierazgarriena da, eta lotura estua du bai herriarekin, bai kulturarekin. Txorierriko Baserri Antzokia eskualdeko eta inguruko euskaltzaleen topagunea izango den heinean, "erabilera anitzeko aretoak sortu dira beheko solairuan, funtzio ezberdinak elkarrekin erlazionatu daitezten. Leku garbiak eta irekiak lortu ditugu, egurra erabiltzeko eraikuntza sistema tradizionalak eta egungoak nahasiz. Bestalde, barrualdearen eta kanpoaldearen arteko lotura bultzatu egiten da, baserria inguruan integraturik", esan digu arkitektoak. Irigarritasun-irizpideak ere izan dira kontuan eraikina diseinatzera-koan. "Horiek oso kontuan eduki ditugu, gainera, mugikortasun urriko pertsonenganako diskriminazioa ekiditeko. Hala, erabilera publikoko gune guztiak beheko solairuan kokatuko dira, eta bermatu

Maialen eta Nerea Armendariz



egingo dira irigarritasuna eta higikortasuna eraikinaren barrualdean eta inguruetan".

Materialen epeltasunak, barrualdearen berezitasunak eta kanpoalde atsegin-garriek oso eraikin erakargarria bihurtzen dute Baserri Antzokia. "Baserriak xarma berezia izatea da gure helburu nagusia, eta erabiltzaileak etxean baleude bezala sentiaraztea". "Eraikina dagoen lekua ere merezi du aipatzea", gaineratu du Lópezek. "Herrigunetik kanpo egon arren, oso erraz ailegatzen den lekua da eta berdegunez inguratuta dago. Ingurune ezin hobea da Baserri Antzokiaren jarduerako".

## Lanabesa

Euskara eta euskal kultura Txorierriko Baserri Antzokiaren ardatz nagusiak izango dira. Bere helburuak betetzeko, Baserri Antzokia Fundazioak baserria aukeratu du eredu arkitektonikotzat, "euskaldunontzat etxebizitza eta lantokia izan delako". Horrela, historian zehar, baserria nekazaritza eta abeltzaintza-lantokia izan da, burdinola, errota, sagardoa eta txakolina egiteko lantokia... "Eta orain, euskara eta euskal kultura sustatu eta aurrera eramateko lantokia eta etxebizitza ere izango da". Baserri

Antzokia, beraz, aurreko helburuak betetzeko lanabesa izango da, eta horrexegatik, hain zuzen ere, Txorierriko biztanleak eta bertara doazen langileak dira garrantzitsuak Fundazioarako. "Oraingo honetan, kultur eta ekintza plana da gure zeregin nagusia eta uste dugu, horretan, guztion parte hartzea ezinbestekoa dela. Beraz, laster harremanetan ipiniko gara Txorierriko elkarteekin eta kide guztiak animatu nahi ditugu prozesuan parte hartzera. Ekarpinak maila pertsonalean ere egin daitezke, euskara elkarteetara edo TOTOANera deituz gero. Horixe baita lehen eta azken helburua".

## Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonia: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**AIKOR! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

# Irudiaren sortzaileak

ATOMIKA STUDIO

Atomika Studio komunikazioa eta produktu grafikoak lan-tzen dituen estudio sortzailea da, eta edukiak garatzen dabilta, beste proiektu batzuen artean, Txorierriko Baserri Antzokirako. Estudioa Komunikazioaren arlo ezberdinetatik datozen hiru gazte sortu zuten orain dela urtebete. Egitasmo gaztea da, beraz, eta freskotasun hori da hain zuzen ere beren indarguneetariko bat, komunikaziorako eta irudirako duten grinak azken joerei adi egotera daramatza-eta.

“Komunikazio garbia, eraginkorra eta erakargarria garatzen laguntzen diegu markei, enpresei eta erakundeei. Hala, produktu grafikoak eta ikus-entzunezkoak sortzen ditugu, eta gainera, izugarri gustatzen zaigu teknika anitzen bidez esperimentatzea eta ikertzea, proiektu bakoitzean emaitza originalak lortzeko”. Unai G. Langarika, Jon Goikouria eta Aimar Ruiz Atomika Studio enpresaren arima sortzailea dira, eta aurreko hitz horiek beraien aurkezpena.

Irudia eta komunikazioa ezinbestekoak diren munduan bizi gara, eta horrega-

tik zerbitzu integrala eskaintzen diete bezeroei arlo horietan bietan. “Irudia oso inportantea da gaur egun. Azken batean, enpresaren irudia enpresaren isla da eta bezeroek guri buruz duten iritzia baldintzatzen du. Irudi garbia adierazten badugu, harrera hobea edukiko dugu gure bezero direnen eta izan daitezkeen artean. Diseinua, argazkigintza eta bideogintza erremintak dira horretarako”.

Atomika Studio-k markaren garapenari lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen dizkie bezeroei, hala nola logotipoak, publizitatea eta kartel eta paper-gauzak

*“Enpresaren irudia enpresaren isla da eta bezeroek guri buruz duten iritzia baldintzatzen du”*

euskarri digitalean zein inprimatuan. Era berean, webguneak egiten dituzte eta eduki multimedial sortzen dituzte, hau da, promozio-argazkiak eta bideoak webguneetarako, erakusketarako edo publizitaterako. “Horren haritik, 4k bideokamera ere erabiltzen dugu eta horrek balio erantsia ematen dio produktuari, teknika asko garatu ahal izateaz gainera, oso bereizmen ona eskaintzen duelako, HD-ak baino lau aldiz handiagoa”.

Hiru gazte sortzaileen esanetan, enpresek eta erakundeei inbertsionatzat hartu behar dituzte diseinua eta publizitatea; horiek gastutzat hartzea akats larria da. “Enpresa askok beren irudia sortzen dute behin eta ez dute inoiz beritzen. Hori oso arriskutsua da, enpresaren irudia zaharkitu egiten delako. Eta ez gara bakarrik logotipoari buruz ari; webguneari, euskarri inprimatuei, eduki multimediei eta interaktiboari... komunikazio guztiari buruz baizik. Zenbat aldiz gertatu







zaigu, esate baterako, sakelako telefonotik webgune batera sartu eta hori gailu horretara egokituta ez egotea? Berritzen ez den enpresa atzean gelditzen da eta, ondorioz, ezinbestekoa da irudian eta komunikazioan inbertitzea”.

#### Ikuspuntu berritzailea

Urtebeteko ibilbidean proiektu sorta zabala garatu dituzte hainbat enpresa eta elkartetarako zein autonomo eta partikularrentzat. Batzuk aipatzearren, marka irudia eta webgunea sortu dituzte Bilboko moda denda batentzat, eta etiketak eta kartelak diseinatu dituzte artisau garagardoa ekoizten duen Getxoko enpresa batentzat. Promozio-bideo bat ere grabatu dute Atarrabi Sondikako tabernarako. “Gaur egun eskuartean ditugun lanik potoloenak dira, alde batik, Baserri Antzokirako argazkien bidez egiten gabiltzan dokumentazio-lana; eta bestetik, Sondikako Inauteriak Elkartearekin iaz lantzen hasi ginen egitasmoa. Azken horri dago-kionez, bigarren urtea da Sondikako inauteriak bidez grabatu eta argazkiak ateratzen ditugula. Eta aurren, gizarte-sa-

reetan ere ibili gara inauteriak bultzatzen eta jendea bertan parte hartzera animatzen. Bestalde, Baserri Antzokia eraikitze-ko prozesu osoa argazkien bidez jasotzen gabiltza, komunikazio-lanetarako eta gero argazkiak ikusgai ipintzeko. Horiek bezalako proiektuak edozein enpresekin jorratu daitezke, enpresa txiki, ertain zein handiekin”.

Hasieran aipatu dugun bezala, fresko-tasuna eta gaztetasuna Atomika Studio enpresaren indargunetarikoa bat dira, baina ez bakarra. “Alor bat baino gehiago lantzen dugu eta, ondorioz, zerbitzu integrala eskaintzen diogu bezeroari. Gaz-

teak gara, kreatibitate handikoak, eta proiektuei ikuspuntu berritzaileago bate-rik heltzen diegu. Azken joeren bila gabil-tza beti, han eta hemen aztertzen zer den modan dagoena”. Bezeroarekiko hurbiltasuna eta eleaniztasuna enpresaren beste ezaugarrietako batzuk dira. “Feedback handia dago bezeroen eta gure artean eta horrek komunikazioa hobetzen du. Oso malguak gara eta beti gaude beren ideiak, kezak eta ekarpenak entzuteko prest. Hizkuntza aldetik, proiektuak euskaraz, gazteleraz zein ingelesez jorratzen ditugu”. Gure irudia esku hobeetan ez da egongo.

*“Diseinuari,  
argazkigintzari eta  
bideogintzari lotutako  
proiektuak  
garatzen ditugu”*

*“Berritzen ez den enpresa  
atzean gelditzen da;  
ezinbestekoa da irudian  
eta komunikazioan  
inbertitzea”*



✉ info@atomikastudio.com  
🌐 www.atomikastudio.com  
☎ 94 656 99 05

# “Larrabetzun, galdeketa egingo da 2017ko udaberrian”

OIHANA ASTOBIETA ETA OLAIA AURRE | GEDren ordezkariak Txorierrin

Gure Esku Dago (GED) herri mugimendu batetik sortutako dinamika da eta ardatz nagusizat erabakitzeke eskubidea du. Gero eta indar gehiago hartzen dabil eta duela gutxi mugimendu izatetik elkarte formal izatera pasatu da, “Eskura” prozesu parte-hartzailearen bitartez. Txorierriko ordezkariak gakoak eta datozen urteotan emango diren pausok azaldu dizkigute.

a: *Roberto Gómez*

**Hasiera-hasieratik jendearen babesa izan duen herri dinamika izan da GED.**

2014an, giza katea izan zen Euskal Herri mailako ekintzarik esanguratsuenak. Parte-hartze zabala egon zen eta aurreikuspenak guztiz gainditu ziren. Bertan parte hartu zuen masa sozialak ilusio handiz ekin zion bideari. 2015ean, erronka handiagoa hartu genuen, Euskal Herriko hiriburu guztietan indarra adieraziz. Gu San Mamesen batu ginen, eta futbolzelaia betetzea lortu ez genuen arren, egun ederra izan zen eta ilusioak piztuta jarraitzen du.

## **Eta Txorierrin?**

Txorierritarren erantzuna oso ona izan da hasieratik. Oso ilusionatuta eta parte hartzeko gogoz azaldu dira eta horrek indarra eman digu antolatzaileei. Giza katera, esate baterako, 1.500 lagun inguru joan ginen Txorierritik.

**Zelako eragina izan du amaitu berri den “Eskura” prozesuak dinamika egituraketan?**

Euskal Herri mailan 180 herri batzordetik gora daude. Barne-egituraketa hauek osatzen dute: Batzar Nagusiak, herri batzorde guztiek osatzen dutena, Txorierriko sei batzordeek tartean; Zuzendaritza Batzordeak (gu bertako partaidea gara); eta bazkideak. Batzar Nagusia GEDren organo gorena da eta bazkide guztiek osatzen dute. Organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak ohiko eta ez ohiko batzarretan, eta gutxienez urtean behin batu beharko da. Bestetik, Zuzendaritza Batzordea egune-

roko kudeaketaz arduratzen da, eta bazkideek Batzar Nagusia parte hartzeko eskubidea dute. Era berean, euren botoa eman dezakete edozein erabaki hartzeko, eta herri batzordeetan parte hartzeko.

**GEDren egitura sostengatu eta Euskal Herri mailako erronkari heldu ahal izateko, bazkideak kanpaina**

**ezinbestekoa zen ondorioa ere ateratu zenuten prozesu horretatik.**

Helburua ahalik eta bazkide gehien lortzea da, eta gustatuko litzaiguke bazkide multzoa ahalik eta anitzena eta parte hartzaileena izatea, bazkideak ezinbestekoak baitira dinamika honek aurrera jarrai dezan. Urteko kuota bat ordaindu





beharko da, eta bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian egin ahalko du. Bazkide egiteko, nahikoa da Txorierriko edozein herritako batzordera jo eta fitxa betetzea. *Online* egiteko aukera ere badago, gure-[eskudago.eus](http://eskudago.eus) webgunean.

### **Zelako urratsak emango dituzue datozen urteotan?**

Helburutzat 2018a ipini dugu. Bitartean, lan handia egin beharko da, tokian tokiko dinamika Euskal Herri mailako dinamikaekin uztartzeko, eta, lan horren ondorioz, 2018an galdeketa egin ahal izateko. Gure lema adierazten duenez, hori "Gure Esku dago". Izan ere, herri horretan sarri ikusi den moduan, denon indarra batuz gero, emaitza bikainak lor daitezke. Horra bidean, aurtan adierazpenak landuko ditugu herriz herri. Herri batzorde bakoitzean erabakiko da zer adierazi, eta ekainean jendarean erakutsiko dira. Helburua, erabakitzeko eskubidearen inguruan, herrietan eztabaidatu eta adosguneak lortzea da. Besteak beste, galdeketa egitekoan, zer galdetuko li-



tzatekeen inguruan eztabaidatuko dugu. Herri guztietako adierazpenak batu eta, 2017an, erabakitze ituna lortu nahi dugu, hurrengo urtean galdeketa egiteko. Horrezaz gainera, galdeketa sinbolikoak egingo dira herri batzuetan.

### **2016an galdeketa sinbolikoak Gipuzkoako Goierriko 22 herritan, Diman, Ispasterren... egingo dira. Txorierrin?**

Bai. Larrabetzun batzordeko lagunek erabaki dute herri galdeketa 2017ko udaberrian egitea. GEDk badu protokolo bat herri-galdeketa egiteko, legearen barruan dagoena. Eskema hau jarraitzen du: aztertu-proposatu-adostu-erabaki. Gai-ontzeko herrietan adierazpenak landuko ditugu momentuz, eta horietan ahalik eta aniztasun eta babes zabalena lortu nahi dugu.

### **Azaroan galdeketa egin zen Katalunian eta alderdi independentistek akordioa lortu ostean, independentziarako bidea-edo ireki zen. Eredutzat har daiteke?**

GEDtik beti oso modu baikorrean barlotzen dugu galdeketa egin izana, bai Katalunian, bai Eskozian, zein bere garaian Quebecen egin zena, eta beste hainbat herrialdetan. Antzekotasun gehien Kataluniarekin izan ditzakegu, beharbada, baina nazio bakoitzak bere berezitasunak di-

tu eta uste dugu Euskal Herriarentzat eredu propioa sortu beharko dugula, betiere herriaren erabakiak eta nahiak errespetatuz.

### **Estatu aldetik, trabak eta mehatxuak baino ez dira egon. Euskal Herrikoa ere ez da erraza izango.**

Badakigu, baina 2018rako dugun erronka beteko dugula uste dugu. Azken batean, demokraziaren ariketa oinarrikoena ez al da botoa ematea, hau da, erabakitzeko eskubidea? Dena den, galdeketa egitea lortuko ez bagenu ere, oso harro sentituko ginatke egindako lanaz eta gaia gizarteratu izanaz.

### **Prozesu hau guztia aurrera eramateko, herritarren babesa ez ezik politikarien babesa ere izango da inportantea. Zelango jarrera nabaritu duzue orokorrean? Eta Txorierrin bereziki?**

Ematen du politikariak pauso sendoak ematen ari direla, eta euren plangintzetan gero eta gehiago ikusten da erabakitzeko eskubidearen aldarria, edo, behintzat, gaia lantzeko gogoia. Txorierrin aurtan dagokiguna da politikariak, herritarrak diren heinean, gure dinamika gehiago hurbiltzea eta haien alderdian gaia naturaltasunez landu dezatela. Hitzetatik ekintzetara pasa daitezela nahi dugu, alderdi abertzalea izan ala ez.

*"2016an adierazpenak egingo dira herriz herri, eta horietan ahalik eta babes zabalena lortu nahi dugu"*

*"Galdeketa 2018an egin nahi dugu; lortu ezean ere oso harro sentituko ginatke egindako lanaz"*

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Kiroprasajak

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika

Txanemendi etorria, 9 - Loria | Antsoaga erakina | 48140 DERIO  
94 454 01 01 | 957 79 54 45  
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

**HAUR-MODA**

**TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35

**GOXO-GOXO LOHTIZUN**

Arratsaldeko zabalik  
Ogis egutera  
Pistak enkeratuz

Garaioz, 77c  
48100 Lezama  
94 455 42 72  
goxogoxolohitzun@hotmail.com

# Emakume esku-pelotariak, kantxara osterara be

Eskuz Binakako Emakumeen Cup-aren finala martxoaren 6an, 11:30ean, jokatu da Larrabetzuko frontoian. ETB 1ek partidak emongo ditu zuzenean.

t: Itxaso Marina / a: Bizkaiko Pelota Federakuntza

Bizkaiko Pelota Federakuntzak Eskuz Binakako Emakumeen Cup antolatu eban igaz lehenengo aldiz, eta lehiaketak ikusmin handia sortu eban zaleen eta ez zaleen artean. Izan be, aldi berean hiru gertakera izan ziran: emakumeak hasi ziran federatu mailan esku-pelotan jokatzeko; Txokoan emakumeen esku-pelota alkartea sortu zan Larrabetzun; eta, historian, lehenengo aldiz antolatu zan emakumeen esku-pelota txapelketea federatu mailan. Txapelketea aitzindaria izan zan eta Txokoan-eko neskak komunikabide eta gizarte-sareetako protagonista bihurtu ziran egunetik gaurera. "Egoerak gainditu egin gintuan, ez gagozalako horrelakoetara ohituta eta ez gendualako uste horrenbeste oihartzunik eukiko ebanik. Gainera, kritikak be jaso genduazan pelotari batzuek aukeratutako arropagaitik, eta batzuek esan eben Gipuzkoan gu baino pelotari hobeak dagozala. Baina, honek guztiak esku-pelotan emakume gehiago ibiltzeko animetako balio izan badau, gu pozik".

Eta halan izan da. Gaur egun, Bizkaian, 32 emakume esku-pelotari dagoz federatu eta hareetako 22k emon dabe izena txapelketan. Larrabetzukoakaz batera, beste-

ak beste, Usansolo, Ereño eta Markinako esku-pelotariak ibili dira Emakumeen Cup-ean lehian. Kanporaketak otsailean egin dira maila bitan eta finala martxoaren 6an jokatu da Larrabetzun. Igaz, Zamudion izan zan eta Udalak harmaila osagarri bat ipini behar izan eban atzeko errebotean; Larrabetzun be frontoia betetea espero dabe. "Kamarak aurrean izatea larregi ez urduritzea espero daigun. Nasai jokatu eta partida politak eskaintzea gustauko litxakigu. Ea giro polita sortzeko gai garan!".

## Erreferenteak

Iker Amaria larrabetzuarra Bizkaiko Pelota Federakuntzako presidente orde eta esku-pelota modalitateko arduraduna da. Azaldu deuskun moduan, neskatilek, haur edo kadete mailara ailegaten diranean, esku-pelotea ixten dabe, pelota gogorraz hasten dalako jokatzeko. Eta gehienak, edo asko, beste modalitate batzuetara pasaten dira, palea eta trinketa esate baterako. Federakuntzatik hutsune bat ikusi dabe arlo horretan, eta ahalegina egin da emakumeak esku-pelotan ibiltzen animetako, eta modalitate horretan be bardintasuna bultzatzeko. Lehen pausua emakumeen kategorian pelota bigunagaz jokatzeko baimentzea izan da. "Esku-pelotan edozein emakumek jokatu leike.



*"Garrantzitsuena pilota neskentzako kirola be badala erakustea eta egoera normalizatzea"*

Bardin deutso bere adina, ama bada, ikaslea... Txarto egindakoa izan daiteke, behar bada, emakumea hasieratik beste modalitate batzuetara bideratu izana eta esku-pelotea bere ezaugarri fisikoetara moldatu ez izana, beste kirol batzuetan egin dan moduan. Halan, pelota biguna sartu danean, ikusi dogu asko animau dirala jokatzera eta jokatzeko jarraitzen dabela. Egia esateko, gizonen kategorian be, gero eta gitxiago jokatzeko dabe esku-pelotan, pelota gogorraren exijentzia-mailagaitik. Baina tradizioa danez, gogorraz jokatu behar". Txokoan-eko neskek be adierazo dabe pelota biguna erabili ahal izatea era-

**Peluteria Estetika**  
94 455 81 44  
Angulu 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

**Club Hípico Aretxalde**  
Pony club - Zaldiketa ikastarnak  
Aisialdirako landak - Apoiolo zerbitzua  
Salto - Txangoak - Animalien haziketa  
Telefonoa:  
IBON - 659 90 75 88  
Aretxalde auzoa, 49 • 48196 LEZAMA

**elekma**  
LARRAZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOKAK  
Lehenengo mailak • Prezioak onak  
BOSCH, SIEMENS, BALAY  
Txerri etxeak, 25-37 • 48180 Iruia  
T: 944 539 232  
www.elekma.es





bagigarria izan dala, helduaroan esku-pelotan ibiltzen animetako orduan. "Pelota gogorragoek min handia sortzen dabe txikitan landu ez diran eskuetan, baina pelota bigunagaz eta eskunarruakaz ez dago min hartzeko bildurrik; eta beraz, ezta atxakiarik ez".

Bigarren pausua txapelketea martxan ipintea izan da, emakume esku-pelotarien jokoa jente-aurrean zabaltzeko, eta esku-pelotan ibiltea gustauko litxakien neskatilek eta emakumeek erreferente bat euki daien. "Finala ETB1etik emongo denez, espero daigun bere eragina eukitea eta Euskal Herri mailan emakume gehiago

animetea; egon badagozalako", esan deusku Amarikak. Beste lurraldeetako federazioetatik be jaso ditue deiak txapelketearen zehetasunen inguruan galdetuz. "Pozgarria da, gure helburua esku-pelotan zein txapelketetan ahalik eta emakume gehien ibiltzea dalako, eta beste lurraldeetan be horretarako interesa erakutsi dabe". "Iruñean taldea sortu da orain dala gitxi eta hangoak jokatzeko irrikan dagoz", gehitu dabe Txokoan-ekoek. "Azaroan, emakume pelotarien topaketak antolatu genduzan Larrabetzun, eta ikusi zan beste probintzietan be jokatzeko gogoia daukien emakumeak dagozala. Bartzelonatik be etorri

zan laukote bat; apirilean geu joango gara bertara".

### Normalizatzea

Bestalde, neska gitxi izaten dira esku-pelota eskoletan. Mutilakaz batera eta mutilen kontra jokatzan dabe normalean, baina Txokoan-eko neskek aitatu daben moduan, 12 urtetik aurrera, pelota gogorragaz jokatzan hasteaz gainera, indarrari lotutako ezberdintasunak handiagotu egiten dira, eta askok ixten dabe edo beste modalitate batzuetan saiatzen dira, modalitate horreetan neska gehiago dagozalako. Horren haritik, ezinbestekotzat jotzen ditue Federakuntzak Bizkaiko esku-pelota eskoletako neskakiten artean antolatzen dituan topaketak. "Hilabeterik behin egiten doguz Miribillan", azaldu deusku Amarikak. "Berrogei neskakila inguru dira eta helburua alkar ezagutzea da, eta ikusi daien ez dirala esku-pelotan jokatzan daben bakarrak. Txapelketea be hareei zuzenduta dago, erreferente bat euki daien eta, gura izanez gero, esku-pelotan jarraitasun bat euki dagiela ikusi dagien".

Txokoan Larrabetzuko emakume esku-pelota alkarteak ikastaro batetik sortu zan, eta bere kideen eretxiz, ondo legoke herri guztietan halako ekintzak antolatzea, aurrerapausuak emoten jarraitzeko. "Halanda be, garrantzitsuena umetatik lantzea da. Esku-pelotea neskentzako kirola be badala erakustea, eta egoera normalizatzea. Horregaitik joan gara zenbait ikastetxetara taldea ezagutzera emoteko eta neskakilak esku-pelotan jokatzan animetara".



**LARRABETZU**  
☎ 94 455 81 97  
**LOROÑO BEHEKOA**  
(BIZKAIA)



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basernko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Samikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



**ASADOR  
ARAMENDI**

**EZKONTZAK  
BATAIOAK  
BANKETEA  
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119  
Tifnoa.: 94 452 11 58  
**ZAMUDIO**

t: Itxaso Marina

"Beti gustau izan jat egurra. Eta, azoka pare batera joan nintzan, egurra zelan lantzen eben ikustera. Eta handik hona nire kabuz ibili naz egiten eta ikasten. Erdipurdiko gubiak erosi nituan hasieran eta apurka-apurka joan naz hobetzen". Euskal Herriagaz eta euskal kultura eta ohiturakaz zerikusia daukien lanak egiten ditu Josuk: eguzki-loreak, armariak, erlojuak, bankuren bat... Baita Athleticen lehoiaren burua be. "Gustetan jatan zerbait ikusi eta bueltaka hasten naz, egur-lankea ea zelan egin ahal dodan". Lanok egiteko, batez be gaztainondoa erabiltzen dau. "Errazena eta onena da lantzen. Haritza be erabiltzen dot, baina askoz gogorragoa da. Dana dala, danatarik... Egur zaharrakaz lan egiteko be ez daukat arazorik".

Azaldu deuskun moduan, berton topau daitezke koadruak-eta lantzeko oholak, baina zerbait bereziagoa egin gura badau, esate baterako, erliebezko lan bat, ohol handiagoak behar ditu, gaztainondoa, eta horreek Asturiasetik ekarten ditu. Bere burua trebatzen joan dan bitartean, hainbat lan egin ditu, eta horreetako batzuk oparitu egin ditu edo saldu egin ditu. Etxean be badauka partida bat. Enkarguak jasoten ditudanean, gitxienez materialetan eta tresnetan ipinitakoa aterateko kobraten dau. "Pentsa eizue, gaztainondo-ohol batek 80 euro kostau leike, eta horri erabiltzen diran tresnak gehitu behar jakoz, berniza...". Eta denporea, jakina. "Gatxa da ale bakotxa egiten zenbat denpora emoten dan kalkulatea, izan be, ez da jarraian egiten dan lan bat. Ez dakit, lan ertain bat egiteko, 20 ordu, beharbada". Josuk badauka bere lan egiteko ere. "Zerbait pentsau eta marraztu egiten dot, eta neurriak atera. Egurrera eroaten dot eta lantzen hasten naz, lixatu, bernizatu... Lanak bernizatu egiten dodaz normalean, edo tinduren bat emon,

# Egurra eskuetan

JOSU ARETXABALETA | artisaua

Egurra lantzea zaletasuna da Josu Aretxabaleta zamudiotarrarentzat; bere burua hobetzen eta munduaz ahiztuten laguntzen deutson zaletasuna, hain zuzen be. Egurrari formea emoten orain dala 20 urte inguru hasi zan eta guztiz autodidaktea da, bere kabuz joan dalako mundu honetan sakontzen eta teknikea hobetzen.



**Ford Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ETXKO OHELETA ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOROGINTZA APARTA

**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98  
Fax 94 454 14 12

Mungaiako etorbidea, 25  
48160 CENJO

**Nire Autocasion NA**

**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**

**GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA**

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefona-Fax: 94 454 51 92

[www.nireautocasion.com](http://www.nireautocasion.com) [info@nireautocasion.com](mailto:info@nireautocasion.com)



baina beti egurraren tonuarena. Halanda be, ale batzuk be margotu egin dodaz, esate baterako, Athleticen lehoiak”.

Egurrezko tailak Zamudiotorren ipini ditu ikusgai, eta Zamudioko Azokan be birritan hartu dau parte. “Baina beste barrik, nik honegaz ez dodalako bizimodua ataraten. Dana dala, polita da zure lanak ikusgai egotea eta jenteak gustetan jakola esatea”. Eta berari, gustauko litxakio egur-lanketan modu profesionalean ari-tzea? “Gustau, gustauko litxakit, baina, egia esan, gaur egun hori ezin da eta ez deusatz inoiz neure buruari halakorik

planteau. Egurra lantzea nasaitua da niretzat, nire lana batzuetan oso estresagarria dalako. Zapatu edo domeka goizean al-tzau, satora joan eta mundua ahiztuten dot bertan”.

#### Eskuak

“Zakarrontzira” egur pilo bat bota dau urte honeetan. “Lanean zabilzala, zati bat apurtu eta barriro hasi behar”. Baina bere burua hobetzeko gauza dala erakutsi dau. “Hasi nintzanean, halako lanak egiteko gauza nintzan ikusi gura neban. Gauza sinpleak ziran, orain lelokeriak iruditzen

jatazanak. Lan korapilatsuagoak egiten dodaz orain, eta dana nire kabuz ikasi dodanez, ba, politena hori da beharbada, euki dodan bilakaerea eta hobetu izana”. Eroso sentitzen da egurragaz, eta bereziki lagun batzuentzat egin dauan lanaz harro. “Esku bi dira, soinu bategaz; eta beste esku bat, panderoagaz. Lan apur bat abstraktua da, detaile asko daukana eta lan handia eskatu dauana. Bueltatila pilo bat emon behar izan neutsazan lan horri... Gainera, egur mota ezberdinak nahastu nituan, kolore ezberdinak lortzeko. Beste ukitu bat dauka”.

Halan izanik, horrelako tailak lantzen ahalegintzen da orain. “Ohol bat hartu eta, adibidez, kaxoi bat egitea ondo dago, baina ez deustu aseterik ekarten. Lehen aitaturako lan modukoek, osteratila, bai. Gatzena egiten eskuak dirala dinor, eta ni denporaldi baten ibili naz eskuak lantzen. Gero eta hobeto egiten dozuzala ikustea gozamen handia da”. Irudimena, gubia eta egurra sortzeko erremintatzat daukaz Josuk; burua, datozen lanetan. “Eguzkilo batzuk egiten nabil eta mahai bat be egingo dot lagun batentzat”.

*“Politena euki  
dodan bilakaerea  
da, beharbada,  
eta hobetu izana”*



Konekta zaitez gurekin!

**aikor!**  
lanerriko aldizkaria



**Facebook:**

aikor.txorierrikoaldizkaria



**Twitter:**

@AikorTxorierr



**Webgunea:**

www.aikor.com



# Tradizino bihurtutako apustua

t: Itxaso Marina

Batzuk eleizkizunetatik, eta beste batzuk beste zereginetatik etozala, Sondikako zortzi lagun 1966. urteko Bariku Santuan, iluntzean, lotu ziran herritik txikitant ibilteko. Tragua dala eta ez dala, goizaldeko hirurak jo zituan eta ardaoak eragindako adoreak ahoberokerietan ibiltera be animau zituan. "Ezet..." hasi zan bat, "Ezet..." jarraitu eban besteak, harik eta Kotxelisek asmau eban arte. "Ezet bihar goizean Oiz mendira igon!". "Baietz ni igon, jaitsi eta, beharrezkoa bada, zuenatariko batzuk tontorreraino eroan be!", erantzun eutsan Kataretzak. Eta hurrengo goizean, zortzi lagunak Seat "600" baten eta moto bitan abiau ziran Oiz mendira. Lau litroko zahagia be eroan eban Felixek.

*Plaka bat  
ipini eben  
tontorrean  
30. urteurrenean*

Autoa eta motorrak Trabakuan itxi eta, bueltan bazkaltzeko, indaba-jana eta txuletak prestetako eskatu eben hango jatetxe baten. "Apustua bota ostean, batzuk etxera joan ginan apur bat lo egitera, baina beste batzuok parrandan jarraitu genduan. Beraz, pentsa daizuen! Penagarria! Igoten hasi eta bik ahulaldia hartu eben. Tontorreraino igoten lagundu behar izan geuntsen, gelditu, aidea emon... (kar, kar). Hareetako bat Kataretza izan zan; jatun handia, baina egun horretan ezta indabak probau be. Zurbil-zurbil egoan. Prakak estuegi eukazala zioen (kar, kar)".

Hogei urtetik 26 urtera bitarteko zortzi mutil izan ziran Zapatu Santuan Oiz mendira igoteko ohiturea zabaldu ebena. Aitatukoak, gehi Nilo, Kankel, Juan Mari, Txetxo eta Goio. "Hurrengo urtean errepikau behar genduala esan eta halan egin genduan. Baina handik aurrera ez dogu inoz hitzordua barriro ipini. Berez bihurtu da ohitura. Guk badakigu Zapatu Santuan Oizera igoten dala eta gura

Felix Libanok eta Kotxelis Apoitak 20 eta 26 urte zituen, hurrenez hurren, Oiz mendira (1.026 m), Zapatu Santuan, lehen aldiz igon ziranean. Andoni Azkorra orain dala 35 urte batu jaken. Lagunen arteko apustua 50 urte bete dituan tradizino bihurtu da.



dauana tren-geltoki zaharrean azaltzen da goizeko 8etan, hori dalako lotzen garra lekua. Jatetxean be ez dogu inoz alde aurretik lekua gorde. Egun berean esaten geuntsen zenbat ginan bazkaltzeko. Gure zain egozan; jatetxeak zein auzokoak. "Bihar Sondikakoak etorriko dira", esaten eben... Halanda be, ez dogu jada bertan bazkaltzen. Alde batetik, ugazaba barriak dagozalako, eta bestetik, autoa hartu behar danez, ezin dalako gustura edan. Orain Sondikan bertan edo Deustun egiten dogu bazkaria, txoko baten".

## Pasadizuak

Denporearen podasoz, herritarrek ohiturearen barri euki dabe eta asko animau dira urtearen parte hartzera. Halan, 50 urtean, Zapatu Santuan, beti igon da norbait Oiz mendira. "Hamar bat lagun batu ohi gara, baina urte baten bi baino ez ginan igon; beste urte baten, 20 lagun inguru. Gero badagoz batzuk mendira ez datozenak, baina indabak jatera, oster, bai! (kar, kar)". Lagun taldea handituz eta



barrituz doa, bertan 40 urtetik 75 urtera bitarteko "mendizaleak" batzen diralako. Oiz mendia ez da erraza igoten eta batzuek entrenamentuak eta guzti egiten ditue aurreko egunetan. "Gazteentzat be ohitura bihurtzen dabil, eta zaharrenentzat erronka. Eta azken horreengan pentsauaz, hain zuzen be, aldatu da tontorrera igoteko ibilpidea, errazago egiteko. Orain pistatik goaz".

Lehen urteko igoerak emondako "esperimentziaren"-ren eraginez, Sondikako lagunak zintzo-zintzo ibili dira menditik urte honeetan eta, zelan ez, pasadizu pilo



bat ditue kontetako. "Behin, eskopetea eroian eta loba bigaz egoan gizon bategaz topau ginan. "Nongoak zarie zuek?". "Sondikakoak". "Sondikakoak? Ba, gerran, Puerto de Santamarian egon nintzan preso, ziega berean, Sondikako bategaz, Felix Libano izeneko bategaz". "Aiba! Nire aita!" (Felix). Anekdotak triste bat be badabe. "Askok gogoratuko dozuenez, Oiz mendiko istripua, hegazkin horrek Euskal Telebistako antenearen kontra jo ebanean, 1985. urtean izan zan. Hurrengo urtean handik pasau ginan eta artean baegozan hondarrak: zapatak, arropak, hortzordeak... Gogorra. Medaila bat topau genduan; izena ekarren eta senideei itzuli jaken...". Eta baten batek bere ohiturea be ipini dau. "Tomasek, 70 urte dituanak, San Blas kordioa tontorrean erretan dau. Ikusgarria da: haizea, bera izerdiz bustita, haize-babesean... txiskeroagaz kordioa erretan ahaleginduten... Ai ama! (kar, kar)". Tonua aldatu da osterak be.

### Berezia

Aho batez dinoe Zapatu Santua, edo Oiz mendira igoten diran eguna, oso egun berezia dala, ahaztuezina. "Gainera, kontuan hartu behar dozue, lehen, Aste Santuan, ez egoala zer egin... Beraz, mendira joatea denporea emoteko ia modu bakarra zan." Eta egun hori jasota geratu eitean, plaka bat ipini eben tontorrean, Oizera 30. aldiz igon ziranean. "Paper baten, Oizera inoz igon ginan guztion izena idatzi genduan eta tutu baten barruan sartu genduan; eta tutua, zulo baten. Gaietan, altzairu herdoilgaitzeko plaka bat ipini genduan. Lontxo Zugazagak idatzitako berba batzuk eta iparrorratz bat dagoz grabautan".

Aurten 51. aldiz igongo dira Oizeko tontorrera, eta oraindino ez dakie ezer berezirik egingo daben. Halanda be, jakin badakie gustauko litxakiela tradizioa denporean zehar mantentzea. Beste 50 urte gehiago, edo, ahal bada, askoz urte gehiago. "Zelango bilakaerea eukiko dau? Hori denporeak esango dau. Gurea berez sortutako ohiturea da eta bere bidea egingo dau". Hitzordua, betiko moduan, Zapatu Santuan, goizeko 8etan izango da Sondikako tren-geltoki zaharrean. "Gura dauanak badau etortzea. Eta lekua be egingo deusagu gugaz bazkaltzeko. Hori bai, bost minutu baino ez dogu itxaron-go!".



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:  
TXARTELDEGIAN  
Edozein ekintza hasi baino  
ordu bat lehenago





**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefona 94.453.64.13

## ANTZERKIA

### CAPERUCITA FEROZ

AG  
Glu-Glu Producciones  
Komedia musikala  
Martxoak 5, 20:00  
Prezioa: 10 €





**ROBOTS: LA INVASION**  
87' EG-7 (2D)  
Martxoak 6, 17:00



**DEADPOOL**  
106' EG-16 (2D)  
Martxoak 6, 19:30



**JEM Y LOS HOLOGRAMAS**  
118' EG-7 (2D)  
Martxoak 13, 17:00



**IAVE CESARI**  
106' AG (2D)  
Martxoak 13, 19:30



**ZOOTROPOLIS**  
108' AG (2D)  
Martxoak 20, 17:00



**TENEMOS QUE HABLAR**  
91' EG-12 (2D)  
Martxoak 20, 19:30

## ZINEA



**DEADPOOL**



**IAVE CESARI**



**TENEMOS QUE HABLAR**

2D: 4 €    3D: 6 €

\*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasun ditzake

# 40 €-ko eskarmentu digitala ☹️



a: zonamovilidad.es

t: Xabier Díaz, BTEK-ko zuzendaria

Urtarrilean, ohikoa baino 40 euro gehiago ordaindu behar izan dugu nire se-meariko baten telefonoagatik. Google Play-koa ez zen aplikazio bat instalatu, eta ordu erdiko deia egin zuen tarifakazio bereziko zenbaki batera. Telefonoan instalatutako suebakiak abisua eman eta komunikazioa moztu orduko, 40 euro.

Otsailaren 9an, Internet Seguruaren Eguna izan zen. Egun horretan, internet eta *smartphone*-en erabilera egokiago eta seguruagoaren alde egiten da 2004. urte-tik hona, bereziki ume eta gazteen artean. *Cyberbullying*-etik gizarte sareetara, urte-ro lelo bat hartzen du ardaztat eta aurtengoa "Egin zure eginkizuna, internet hobe bat egiteko" izan da (*Play your part*

for a better internet), interneten denok parte hartu eta, beraz, eragile izateko aukera dugula azpimarratzeko. Ekintza ugari antolatu dira bai Europan bai mundu mailan: jokoak, hitzaldiak, sareko baliabideak, saio bereziak eskoletan... Izan ere, eta Eurostat-en datuen arabera, Europan, internet erabiltzaileen % 25ak segurtasunari lotutako ezbeharren bat izan zuen 2015. urtean: % 21ak birusak; % 3ak datu pertsonalei lotutako gehiegikeriak; % 3ak dirua galdu zuen; eta % 2a gune ez egokietara sartu ziren umeak izan ziren.

## Ohitura egokiak

Aurtengo leloak dioten moduan, gure esku dago horrelako ekintzen kontra borrokatzea, bai salaketaren bidez, bai

## Loturak:

### Safer internet day gunea

<https://www.saferinternetday.org/>

### Día de Internet Segura 2016:

<http://www.chaval.es/>

### Eurostat info:

<http://goo.gl/WjZcME>

### Egonline

<http://goo.gl/ZgV3Hq>

### Safer internet day lehiaketa

<http://goo.gl/tC6yy2>

ohitura egoki batzuk izanda. Eta noski, garbi eduki behar dugu errudunak iruzur egiten dutenak direla, eta ez ondorioak jasaten ditugunok.

Semeak, lehengusuak eta lagun batzuek esanda, eta nirekin kontrastatu barik, instalatu zuen aplikazioa. Eta hor nire lehenengo akatsa, dudana eta prestakuntza edukita, semeari ez baitiot heziketa digital txikiere eman. Gainera, telefonoa neuk prestatu arren, onartuta utzi nuen egiaztatu gabeko aplikazioak instalatzeko aukera. Errementariaren etxean, zotza burruntzi. Eta gainera, nire telefono konpainiak, besterik adierazi ezean, dei horiek egitea galaraziko zuela pentsatzen nuen. 40 euro.

Lehenengoa ekiditeko, seme-alabekin egin berba, kontuz ibili behar dela esan, eta heltzen zaien edozein loturatan klik ez egiteko. Bigarrenarako, android telefonoa baduzue, sakatu ezarpenen ikonoan, gero "segurtasuna" menuan, eta bertan hautatu barik utzi "iturburu ezezagunak". Eta dei berezi horiek egitea gaituta duzen ez badakizue, jo zuen telefono konpainiara eta haiek esango dizute zer egin.

40195 LEZAMA Bizkaia      C/Arrieta, 100      48100

**S.A.T. LEGU**  
ABOKATUAK - ENKUALDATZAK  
Fon: 94 455 64 17      Tel: 94 455 61 98

**TXORIERRI**  
**Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia  
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11  
txori-erri@euskalnet.net

*envergadura gertu*

ABOKATUAK - ENKUALDATZAK  
SALEROKETAK  
SEGURORIKERAKO AGENTZIA

*Consulting*  
**Sondika s.l.**

**Sabin Askolizaga**  
Aseguru agentzia  
Allianz  
**609 475 746**

Mitxel, 6 beheko  
48150 Sondika-Bizkaia  
Tel: 94 453 18 07  
Faxa: 94 453 60 27



# Irakasle gogoangarriak Errapel Mentxaka

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Lantzean behinetan, lehia eta jokabi-de lohia protagonista diren gizarte hone-tan, pertsona onak datozkigu gogora: Errapel Mentxaka lakoak. Esango dizu norbaitek emakume edo gizon ona ez dela ezer, on hutsa besterik ez, alegia, inor ez.

2015eko otsailaren 20an –orain urte bete– izan nintzen haren hiletan Bilboko San Vicente parrokiari. Derioko Seminarioan irakasle gogoangarri horietakoa izan nuen; ez edonor.


Badakigu, txorierritar askoren irakasle izateaz gainera, Txorierriko –eta Bizkaiko– elizetako ondarearen arduraduna ere bazena. Aldi baten, Errekalde auzoko Artazu parrokiako arduradun ere bai. Agintarientzat kristau deserosoa, oso; hainbestekoa non lehenengo Zaldibiko Citroen ezaguna erre zioten, eta ostean, parrokia berbera. “Onaren pagua, ate osteko palua”.

Edonola ere, nik neuk irakasle sasotik dut gogoan, ze, nerabezaroan –izena bai,

baina izana oraindik erdi hutsik daukaguan– nagusi batek nonortzat hartzea, bene-benetan eskertzen da. Urte haie-tan, zeinetan inteligentzia ikuspuntu logiko-matematikotik eta linguistikotik –CI/AK: adimen koefizientetik– soilik baloratzen zen, irakasle batek autoestima ez dela oinarritzen ez diruan, ez notetan, ezta futboleko garaipenetan azaltzeak, eta azalpen hori autoritate tonuan baino elkarrizketa giroan egiteak, erabateko metamorfosia suposatu zuen niretzat.

Gaur eguneko irakasle-ofizioa ez da aspaldietakoa baino erosoagoa, zeren neska-mutilek gela irekian ikasten baitu-te: kaleko atea ertzirekian dela; telebista-ko leihoa eta mugikorreko leihatila zaba-lik. Hala ere, teknologiak teknologia, nerabezaroako neska-mutilek behar-be-harrezko dute irakasle-tutorea, ikaslea bera aintzat hartuko duen pertsona hel-dua.

Nire gaztaroko marmolean, behin-tzat, Errapel Mentxakaren artista eskuek zizelkaturiko letrek iraun diraute. Neure esker ona!



**BOLALEKU**  
JATETXEA

10. URTETIK

Gardetza, 1 - LEZAMA  
94 455 41 10  
Jatetxea Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

**TABERNA**  
**GAZTE**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1  
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

## Solomoa urdaiazpiko eta gaztaiz betea

t: Maite Lekerika

### Osagaiak (4 lagunentzat):

- 12 solomo-xerra (meheak)
- 6 gaztai-xerra
- 6 urdaiazpiko egosi-xerra
- Arrautza bi
- Ogi arraspaua
- Gatza
- Oliba orioa

### Prestetako erea:

Solomo-xerra bat hartu eta gatz apur bat botako deusagu. Solo-

moaren gainean gaztai-xerra bat eta urdaiazpiko-xerra bat ipiniko doguz; eta horreen gainean, beste solomo-xerra bat. Arrautzak irabiau eta solomo betea arrautzatik eta ogi arraspautik pasako dogu. Beste solomo-xerrakaz gauza bera egingo dogu. Frititzen doguzanean zabaldur ez daitezana, zotz bat edo bi ipini geinkez ertzetan. Zartagin baten oliba orioa ipini eta bero dagoanean, solomoa fritituko dogu alde bietatik.

a: cocinaconmimitos.com



## Etxeko sukaldaritza

a: imujer.com



## Kokoak

### Osagaiak:

- 125 g koko arraspaua
- 100 g azukre
- Arrautza bat

### Prestetako erea:

Osagai guztiak ondo nahasi eta bolatxuak egingo doguz. Bolatxuak azpil baten ipiniko doguz eta labara sartuko doguz 160 gradutan. Apur bat gorritzen diranean, eginda dagoz.

**RPM**  
MAYORISTAS INFORMÁTICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA  
Lehendakari Lopeña plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 08  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**SANTI MAMI**  
ALBAILARITZA  
Nerea Pedrosa C/da, 517  
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**ASADOR FUENTENE** berria  
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:  
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26  
ZAMUDIO (BIZKAI)  
94 452 23 79  
[www.asadorfuenteneberria.com](http://www.asadorfuenteneberria.com)





## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 |   | 3 | 4 |   |   |   |   |   |
|   |   |   |   |   | 6 |   | 1 | 8 |
|   |   |   | 3 |   |   | 4 |   |   |
| 3 |   |   |   |   |   |   |   | 1 |
|   | 2 |   |   |   | 7 | 6 |   |   |
|   |   |   | 5 | 6 | 4 |   |   |   |
|   |   |   | 8 |   | 1 |   |   |   |
| 7 |   | 2 |   |   | 5 |   |   |   |
|   | 6 | 4 |   | 7 |   |   |   |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 9 | 1 | 3 | 7 | 2 | 4 | 6 | 8 |
| 4 | 3 | 8 | 5 | 9 | 6 | 2 | 1 | 7 |
| 2 | 6 | 7 | 4 | 1 | 8 | 5 | 3 | 9 |
| 3 | 8 | 2 | 4 | 6 | 5 | 7 | 9 | 1 |
| 9 | 4 | 6 | 7 | 3 | 1 | 8 | 2 | 5 |
| 1 | 7 | 5 | 2 | 8 | 9 | 6 | 4 | 3 |
| 6 | 8 | 1 | 3 | 5 | 9 | 4 | 2 | 7 |
| 4 | 5 | 9 | 7 | 2 | 6 | 3 | 1 | 8 |
| 2 | 7 | 3 | 4 | 1 | 8 | 9 | 5 | 6 |

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urte 7, behean  
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak  
zentro bakar batean  
-Aurrekontua doan  
-Especialitatea:  
umeak

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

**BIZKARGI**  
TABERNA ETA JANARIA

Urte 4, DERIO 944541655

## Erakusketak

### Sondika

- > "Frankenstein", Santiago Ybañez margolariaren serigrafiak. Martxoaren 1etik 30era, Erakusketa Aretoan.

## Hitzaldiak

### Derio

- > "Gorputza ezagutzea eta minbiziari aurre hartzea (emakumeentzat)". Martxoaren 7an, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > "Ongi hezteko oinarriak", Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik. Martxoaren 9an, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > "Seme-alabei nola ezarri arauak", Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik. Martxoaren 16an, Kultur Birikan.

### Lezama

- > Guggenheim museoa: arkitektura eta bilduma. Martxoaren 3an, 17:30ean, Jubilatuen Etxean.
- > Guggenheim museoa: aldi baterako erakusketak eta tailerrak. Martxoaren 10ean, 17:30ean, Jubilatuen Etxean.



### Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Jokin Urainen Ametsen liburua. Martxoaren 17an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

## Ikastaroak

### Zamudio

- > Ardoa dastatzea, Itziar Insausti eta Iñaki Lopetegiren eskutik. Martxoaren 3an eta 4an, 19:00etan, Larragoiti jauregian. Lagatzu euskara elkarteak antolatuta.
- > Dantza ikastaro monografikoa. Martxoaren 19an, 17:00etan, Kultur Etxeko gimnasioan. Hiru Bat dantza taldeak eta Aiko taldeak antolatuta.

### Larrabetzu

- > Margogintza ikastaroan izena ematea, martxoaren 14tik 18ra, Anguleri kultur etxean.

## Ikuskizunak

### Derio

- > *Encomendados* umorezko zirkuitua. Rafa Forner eta Bermudez. Martxoaren 4an, 20:30ean, Gurea Aretoan. 3 €.

## Irteerak

### Loiu

- > Elotxelerriko mendi martxa. Martxoaren 20an, 09:30, hiritar-zentrotik. Ibilbide 2: 14 km eta 9 km. Izen-ematea: elikagai ez galkorrak eta higieine produktua.

### Derio

- > Donejakue bidea: Pobeña-Castro. Martxoaren 13an, 08:00etan, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatuta.

### Zamudio

- > Inernal. Martxoaren 11tik 13ra, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

### Lezama

- > Kalamua. Martxoaren 13an, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > Txindoki. Martxoaren 19an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatuta.



## Musika

### Lezama

- > Udaberriko kontzertua. Martxoaren 12an, 20:00etan, Andra Mari elizan. Eki-dazu abesbatza, Pozalagua Karrantzako abesbatza eta Elai Alai Portugaleteko orfeoia.

### Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Lou Topet. Martxoaren 13an, 18:30ean.

## Bestelakoak

### Zamudio

- > San Jose eguneko plater-tiroko saioa. Martxoaren 19an, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehi-za eta Arrantza elkarteak antolatuta.

### Larrabetzu

- > Txorierriko Txakolinaren Eguna. Martxoaren 20an.

**HORTZ - KLINIKA**

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A  
DERIO

Telefonoa: 944 543 705

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO

Tel: 94 608 95 31

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

**Abelino Arraindegia**

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO

T: 94 602 75 25-6

**Baserritarren Alkartea**  
**Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

*Pentsu naturalak*





DERIOKO ZERBITZU ETA MERKATARITZAKO ELKARTE PROFESIONALA

# NEGUKO outlet-a

**Martxoak**  
**4 eta 5**

**DENDA BAKOITZAREN AURREAN**

Hilak 6, ostirala 10:00etatik 20:00etara

Hilak 7, larunbata 10:00etatik 14:00etara



DERIOKO ZERBITZU ETA MERKATARITZAKO ELKARTE PROFESIONALA



**Martxoan eta Apirilean,**

Zure merkataritza txartelarekin ordainduz  
gero 5, 10, eta 20€-ko bonoak  
eskura ditzakezu.



\* Ausazko bonoa diru partida amaitu arte.





**VIKING®**

**BELARRA MOZTEKO ROBOT BERRIAK**

**iMow SERIE 4**



**AZKARRAK**

**ARGIAK**

**PROFESIONALAK**

# **BELARRA MOZTEKO ERA BERRIA**



*garaje*

**AURTENETXE**

[www.aurtenetxe.es](http://www.aurtenetxe.es)

NEKAZARITZA ETA LOREZAINTZARAKO TRESNERIA SALDU ETA KONPONTZEN DUGU

**Lezama**

Aretxalde auzoa, 105  
94 455 62 66  
[lezama@aurtenetxe.es](mailto:lezama@aurtenetxe.es)

**Bilbao**

Autonomia, 57  
94 427 29 18  
[bilbao@aurtenetxe.es](mailto:bilbao@aurtenetxe.es)

**Mungia**

Sogea ind, 34. pab  
94 674 83 62  
[mungia@aurtenetxe.es](mailto:mungia@aurtenetxe.es)